



Bertsio elektroniko honen egilea: Ales Bengoetxea. Donostia.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AdemaPelegrin.htm>

## ESKUALDUN PELEGRINAREN BIDALTZAILEA

**Gratian Adema «Zaldubi»**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetasun Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## AINTZIN HITZAK IRAKURTZAILEARI

Beila edo pelegrinaietako deboziona zaharrarentzat lehia handia dute orai girixtinoek bazter guzietan.

Gu ere eskualdunak gure aintzinekoen Fede berarekin bagabiltza hain hauzo ditugun beila lekhu saildu horietan.

Ordean askok hara dohazinean ere deus guti dakite han gerthaturikako gauza miragarriez, eta hango asko manerez.

Liburu eskuara bat eskas ginuen deboziona eta ibilgide hoieri zago-kotena.

Eskualdunek ere zerbeit gure gurerik beharrez, lehenbizian hasi ginen Lurden kantatzeko kantika batzuetarik.

Gero Jubilau urtheko gure pelegrinai handi haren orhoitzapenetan, Jaun Aphezpikuaren nahikariak liburu ttikitto bat zarotan eginarazi.

Ikusirik liburu tiki horrek izan zuen errekesta, eta hain laster denak enplegatu ondoan galde asko heldu zela oraino bazterretarik, hartu nuen xedea bertze hainbertzeren eta gehiagoren ere berehala inprimarazteko.

Bainan hainbertzenarekin eman nion gogoari, hartaraz geroz hobe nuela aldi huntan, aintzinekoan baino zerbeit gehiagorik eta konpliagorik egin, amoregatik eta eskualdunek ere izan zezaten pelegrinai horietako beren esku liburua eta bidaltzailea.

Askok gauza da beraz liburu huntan lehenekoan ez zenik. Egin ahalak segurik egin ditut zerbeit onik eta gostukorik atheratzeko.

Andre Dena Mariak benedikata beza ene lana, eta zuk, irakurtzaile maitea, othoitz egizu neretzat.



### Liburu huntako zenbeit hitz makhur inprimatuak.

- 26garren plaman, 18garren lerroan, bigarren hobeki *hux eginik emana da.*  
 31garren plaman, 5garren lerroan, arroxoinekin *irakurrazu* arroxoinekin.  
 36garren plaman, 13garren lerroan, arrun..... *irakurrazu* arrunt.  
 46garren plaman, 20garren lerroan, guzia..... *irakurrazu* guziak.  
 47garren plaman, 19garren lerroan, bandik..... *irakurrazu* handik.  
 74garren plaman, 12garren lerroan, diozue..... *irakurrazu* diozu.  
 114garren plaman, 11garren lerroan, egearen..... *irakurrazu* legearen.  
 134garren plaman, 6garren lerroan, Harraboz.... *irakurrazu* harraboz.

## I

### Mirakuiluez

Jainkoa Jainko dela nahiz ja frango ezagun den munduko gauza naturaletarik; hargatik hetara beizik ez behatuz, eta deus bertzelakorik ez ikusiz, nekhe liteke hetarik gorago hanbat gogoaren hedatzea.

Mundu huntaz eta hemengo gauzez bertzerik ere badela ohartzeko, behartzen zaizkigu bertze mundutikako seinale edo ageri suerte batzu eta hek dire deitzen ditugunak mirakuiluak.

Mirakuilu baten gertharazteko edo egiteko, mundu huntako gauza naturalen indarrak eta ahalak ez dire aski.

Jainkoaren botherea da bakharra, berak egin kreatureri berak eman legeak alda edo ganbia detzozketena.

Sainduen mirakuiluak, Andre Dena Mariarenak berak, nihola ez ditezke Jainkoaren bothere guzizkoak baizen.

Debruak ere askotan egin detzazke bere mirakuilu gisak, itxurazkoak edo alegiazkoak bedere, Jainkoarenetan sinhesterik ez dutenen xorazteko eta bere saretan aree barnago sarrarazteko. Jainkoak uzten ere dio podore hori, batzuetan gure bekhatuen gaztigutzat, eta bertze zenbeit aldi Justuen beren phorogatzeko.

Mirakuiletan, zoin diren Jainkoaren eskuzkoak, eta zoin debruaren jokoak; zoin diren egiazkoak eta zoin falxoak, ezagun izaten dire komuzki beren suyet xede eta ondorio on edo txarretarik.

Ez dagoko hargatik nor nahiri holako gauzen gainean juye pharatztea.

Elizak berak mirakuilu bat egiazkotzat ezagutu baino lehen, harritzeko da zer eta zenbat lekhuko, eta argi eta froga behar zaion aintzinerat ekharri. Ez da holakotan nihor hura baino zuhurrago eta mesfidago denik, ez eta ere egia eta gezurra hark bezala berexten dakitzanik.

Mirakuiluak bethi izan dire, eta bethi izanen dire; bainan ez du Elizak ororen sinhesterikan manatzen.



Guretzat fedezko artikulu direnak eta bekhatuaren penan herxiki sinhestekoak dire baxharrik Liburu Sainduetan aiphaturikakoak.

Eta hetaz bertzalde baita bertze hainbertze noiz nahi gerthatu eta oraino gerthatzen denik, nihola ukha ez gezurta ez ditezkenak;... hala nola baitire Lurdes hortako mirakuiluak; holakoen sinhestea ez daroku ez Elizak manatzen; bainan bai zentzu komunak.

Arren zenbeitek hori ere ez lukete nahi eta hekien arabera ez liteke haizu ere izan behar mirakuilurik.

Ezik mirakuiluek dauzkigute frogatzen egia edo gauza suerte batzu batere zenbeiten gostuko ez direnak.

Egia edo gauza halakoen ez izatean intres luketenek, natural da hekien frogarik ere ez nahi izatea.

Halere hainitzek gure Fedez irri aisexago naski egin lirote, ez bala-kite gutartean ere baditezkelat heien sinheste gabeaz zer phenxa dakitenak, batere ez hek baino ttonttoagoak, bai eta irri-ordainaren egiteko ere heintto bat on eta gai direnak.

## II

### Pelegrinaiak zer diren

Beila edo pelegrinaia edo saindoraldea erraten zaio, toki saindu bate-ra debozinez egiten den bidaiari.

Ez da oraikoa beilaz norapeit higitze hori.

Lehen lehen denboretako girixtinoek Jesu-Kristo Gure Jaunaren ibildegietarat, eta bereziki Jerusalemara zuten beren ikusminaren lehia.

Erromara buruz ere laster abiatu ziren, Jaundoni Petri eta Jaundoni Paulo, biak han egonak, han hilak eta han ehortziak zirelaketz.

Geroxago bazohazin orobat, edo hulako Apostolu, edo holako Martir, edo halako Apezpiku sainduren hobirat.

Saindutasunaren mirakuiluek denborarekin holako asko helburu ezagutarazi zuten bazterretan.

Aspaldi famatuak ziren: ... Espainian behinik behin, Gure Señora Saragoze Pilharrekoaren beila, eta Konpostelako Santiago Apostoluarena: — Orobat Frantzian, Turoneko Jaundoni Martinena eta Betharrameko Ama Birjinarena.

Andre Dena Mariak berak, Elizaren lehen mendetik hasirik, noiz nahi eta han hemenka, batzuetan bera agertuz, bertzetan bertze zerbeit mirakuiluz, berexi izan ditu toki batzu othoitzerat jendearen osteka bilaztekoak,... bai arimetako bai gorphutzetako hainitz eritasunen sendaraztekoak.

Zer diteke nihun ikusgarri hanbat mirakuiluzkoagorik Italia-Loretako elizan aurkhitzen dena baino? — Han baita Ama Birjinaren beraren sor etxea, Jainkoaren Semea gizon egin zeneko etxea, duela bortz chun eta berrogoita bortz urthe, Nasaretetik zazpi ehun lekhoa hunatago, aingeruek oso osoa airetan ekharria.

Frantziaren bi hegietan ez du oraino hanbat denbora gerthatuak direla Andre Dena Mariaren agertze batzu, egundaino bezein miragarriak:



1846ean Salhetako mendian; eta 1858an, Eskuaherrietarik hain hurbil, Lurdeko harpean.

Saragoze-Pilharreko Ama Birjina, Espainiako aldetik;... Betharramekoa, Lurdekoa, Buglosekoa, Frantziako bertze hiru bazterretarik; horra lauak zoin hauzo ditugun, eta lauak naski Eskualherriaren eremu ohietan.

Iduri du Jainkoaren Ama Sainduari egundainotik lakhet izan zaiola, hurbildik eskualdunari behatzea, eta alde guzietarik gure Fedearen zain egotea.

Beila lekhu handi hoikien ixtorioak ezarriko ditugu haratxago liburu hunen segidan. Arte huntan eskualdun pelegriaren argitzeko, bertze zerbeit oraino badugu erran beharrik.

### III

## Pelegriainiak zertako diren

Jainkoak mirakuilu zerbeitez bere botherea nunbeit irakuxi duenean; toki haren begiz ikustea, eta mirakuiluak han utzi hatzari hurbildik behatzea bera, ez ahal da axegin ttikia fedudenarentzat.

Bagohazi harat, sendi baitugu han badela bertzetan ez bezalako bertehute bat, gure othoitzeri eta izaite guziari loth daitekena.

Arimako eta gorphutzeko asko behar ordutan, nihun baino hobeki han dugu uste gure ona atxeman; eta exenpluak inhaurri dire arrazoin dugula irakusten dutenak.

Harat gohazinean;... gure etxetarik eta herrietarik urrunxko othoitzezko gogoz aldaratze hori bera;... bideko nekhe eta eskasien jasaite hori bera, penitentzia gisa bat da ez guti baliatzen dena.

Egungo egunean guziz, bertze hainbertze, jo hara, jo huna, hor baitabilta herratuak eta lehertuak lurreko gozo ez deusen ondolik; gu ere gure esku alde bagabilta lorietan, zerutikako zerbeitto hurbiltzagotik dakusakegun tokietan.

Bertzenaz ere on da orhoit gaitezen, eta noizean behin bedere gure urraxe bez seinala dezagun ez garela lur hunen gainean bidaiari eta pelegri batzu beizik, hemen egoitza iraupenekorik ez dugunak, eta eternitateari buruz bertze baten bilha gabiltzanak.

Bertze arrozoinik ere badugu, bereziki zenbeit denbora huntan, hain usu eta osteka pelegriaini horietan ibiltzeko.

Munduan orai zerbeit indar duten gutiz gehienek, Jainko legerik ez nahiz, Eliza Katolikoa baitagokate begitan hartua, eta oro, batzu agerian, bertzeak esku azpiz, hor ari baitzaizko alde guzietarik, nundik lurrerat aurdikiren duten.

Gure Aita Saindu handi eta maitea bera, zuzentasunezko eta oho-rezko lege guzien kontra, khien ahal zetzozketen guziak khendurik, hantxe baitagokate gathibo, trabatua, herxatua eta zer nahi axekabez dora-tua:



Behinere izatekotz, holakotan behar dute girixtino bihotzik duketen guziek beren burua irakuxi, ohoragarrienaren, zuzenenaren eta flakoena-  
ren alde.

Munduko indarrak eskas edo exai balin baditugu, othoitzaren bot-  
herea bedere gure eskuko dugu.

Holakotan, zinez lothu behar gare, ez xoilki othoitzari, baina orai-  
no gure othoitzen indarra emenda ahal diroten arrimu guzieri.

Holakotan, othoitz bakharka eginak, othoitz ixilak edo gordeak ez  
dire aski; multzuan eta osteka behar gare bildu tokirik sainduenatarat,  
gure othoitzen batean ematerat.

Pelegriaietara horrela gohazinean, ez da batere gaixto mundua  
ohart dadin gu ere bagarela.

Elizaren exaiek, Jainko legerik gabe mundua bertze nolazpeit gober-  
na uste dutenek, ja hain dituzte bazterrak nahasi, nun orai xuxentzeak bai-  
titu lanak!

Arren hainbertze nahasduen eta makhurren xuxentze hori liteke  
segur mirakuilu bat handia, bai eta denbora berean gure Eliza Ama  
Sainduarentzat gainhartze bat ederra.

Beraz holako mirakuilu baten eske, norat gohazke xuxenago, baizik  
ere asko bertze mirakuilu ja gerthatuak dakitzagun tokietara.

Ez da oraino hortan guzia.

Gutartean finkatu berrixuak ditugun debozior batzuen medioz, —  
batetik gure Adorazionetako egun handietan, bertzetik gure pelegriaiet-  
tan, — irakusterat ematen dugu zer heinetako girixtinoak garen.

Izan da denbora bat, zointan Fede gabeko mundutar zenbeiten  
gatik: heien irrien edo trufen beldurrez; orobat heien handi-itxuraren  
errespetuz edo loxaz, fededun herabe batzu gordeka bezala baitzabiltzan  
bere Erlinjoneko urrax sainduetan.

Noizbeit hargatik fededun horiek aski ernatu ziren fedegabe balen-  
trios hekieri hurbilxkotik beha paratzeko, eta gero heien gizontasunaren  
neurtzeko.

Orduan ohartu ginen guziak, ez zela ez girixtinoeri, halakoen aintzi-  
nean guziz, buruaren aphaltzea, eta deusetaz ere gizona ez dela mundu  
huntan berean hain gora altxatzen, nola Fede ongi pratikatu batez.

Geroztik gabiltza nihoren ahalkerik gabe, ez xoilki gure debozio-  
nezko urrax manatueta, baina orobat beila bide horietan, gure arroso-  
rioak eskuan, eta gure pelegri gurutzeak papoan.

Bertzenaz ere, bere tokiko berri beizik ez dakien girixtino bati hai-  
nitz on egiten dio ikusteak bertzetan ere badirela fededunak: ezik pelegri-  
nai horietan usu hautematen dire guk dugun sinheste berarekin hara joak,  
munduko jenderik handienak berak.

Jaunen jaunak eta guziz halakoak ere nunbeit badirela, badukete  
eskualdun zenbeitek beren begiz han ikustearen beharra.

Bertzalde oraino, saindoralde nausi batera zenbeit ehun edo zenbeit  
mila arima biltzen denean, hura da hura eder eta sustagarri.

Orduan erran diteke bat bederaren bihotza berotzen dela han diren  
bertze bihotz guzien khar sainduaz.

Halakotan, jende ostearen bortxaz ere, bere gisako buila iduri bat  
ijanagatik; sorkha nahasmahas suerte hori bera, zeruko bidean, gauza  
hunkigarria da.

Holaxu naski bertze orduz zarrizkon Salbatzaileari Judeako jen-  
deak, eta bethi mirakuilurik handienez sariztatua zen hekien erresaka sain-  
dua.

Hortakotz ere Elizari egundainotikan lakhet izan zaizko bilkhura  
saindu oste handitakoak.

Orobat ezagutua da, eliza handi batean; jendetze handia biltzen den  
eta fontziorne konpliak egiten diren eliza batean, hobeki dela norapeit  
inharrosten eta largatzen populuaren bihotza, ezen etz asko herri ttikita-  
ko eliza xume eta ofizio jende gutitakotan.



## IV

### Pelegrinaietan nor eta nola behar den erabili

Gure Erljioneko bertze urrax guziek bezala, pelegrinaiek ere hau dute: — egiteraz geroz, behar den bezala dire behar egin; edo bertzenaz hobe batere ez egitea, guziz ez balin bada egiteko bortxa legerik.

Hetaz baliatzeko kondizioeak eskasten badire, zorokeria liteke gero ez baliatuz errenkuratzea.

Gehiago dena holako gauzak kalte beizik ez dire, behar ez den moldez edo xedez egiten direnean.

Hala hala, hainitz on eta salbagarri dire, bai eta askotan mirakuilurainokoa, sainduki, Federekin, bereziki kontzientzia garbi delarik, egiten dituztenentzat.

Beila bat egin eta, beren othoizetan berek nahi zuketen hura ardie-xi ahal izan ez dutenek, on liteke phenxa balezate noren edo zeren falta den.

Maizenik geroni gare zerutikako grazien trabatzaile, gure bekhatuez, gure Fede eta debozione eskasaz, gure xede ez aski zuzenez, eta gure nahi naturalegiez.

Bertzenaz ere, naturalezaz sobera gora diren legeri buruz arrimaturik daude mirakuiluak gure uste naturalaren arabera baitezpada gerthatu behar izateko.

Gauza mirakuiluzko baten berthutea ez da bethi berdin agertzen, kasuak gure iduriz berdina izanik ere. Jainkoari, dohako ikustea noiz eta norentzat diren konbeni mirakuiluen gerthaldiak.

Beila horietarat edo zoin behar orduz gohazinean, ongi baliatzekotz, lehen lehenik garbi aldi bat ona dezogun eman gure kontzientziari, eta gaiten jar adixkide gure Jainkoarekin.

Eskuara beizik ez dakitenek, pelegrinai arrotz horietaraz geroz hirriskatzen dute han ezin kofesatzea; beraz xuhur badute, bideari lothu baino lehen, kofesa beitez beren herrietako aphezari.

Bertze nor nahirentzat ere hori hobe da, guziz oste handitako pelegrinaiak dohazinean, zeren eta orduko builan nekhe baita aldiaren ere atxematea, eta zenbeitentzat segurik, aree nekheago, behar luketen astiarekin eta deskanxurekin lan serios horren egitea.

Ez du hartatik horrek erran nahi, ez dela pelegrin gan behar graziazko estaduan denik baizen. Bekhatorosak ere badohazke eta beharrik askotan dohazi.

Egungo egunean, bekhatorosik exituenak, Fedea bera galdua dutenak, nun ditu hobeki atxematen, jotzen eta aurdikitzen Jainkoaren graziak;... nun dire usuago eta lasterrago konbertitzen,... Lurdeko harpe eta eliza hortan baino? eta berdin bertze holako asko beila lekhetan.

Mirakuilu hori bera hain da egia ezagutua, nun baitire pelegrinaietarat menturatu nahi ez direnak, Jainkoaren graziaz han atxemanak izan bel-durrez.

Baitakite zinez konbertitzeak arima gozo handitan ezarririkan ere, bertze asko gauza latz eta garratz badakharkela ondolik; horrek horrek ditu loxatzen.

Arrozoin hori zenbeitik lañoki aithortu dute, eta naski bertze zenbeitik ere ez dute gutiago phenxatzen.

Pelegrinai oste handiko bat denean, nork berak behar luke onxa ikhasi eta onxa gogoan hartu, hartako aintzinetik irakuxia izaten den arrimua.

Hango proasionetan da arrimu hura xuxen orok atxikitzea beharrenik.

Proasionea izan dadin bi edo lau edo orobat zortzi lerrotakoa; aintzineko buru burukoak behin pharatus geroz, hekien gibeletik dohazinek aski dute sail beraren heien ondolik makhurtu gabe idukitzea.

Beraz gibeletako beha bezo usu bere aintzinekoari, eta xuxen jarraik bekio urrax baten artea huxik utziz.

Ilhunarekin egiten bada proasione hori, guziek behar dute argi bana izan eskuan pizturik, eta hori proasione bide guzian, batek bertzeari, ez argi xortarik ez surik ez emaiteko kasu eginez.

Proasione horietan kantuak ez du ixildu behar. ? Batek edo batzuek has eta, bertze guziek beren aldiko errepikaz behar dute ihardexi.



Ez kantari izanagatik, baxhotzak eman beza nihoren ahalkerik gabe gogotik dakien edo ahal duen bezala kantatzen; ezen elizako ofizio kantatuetan egin dezakegun othoitzik hoberena da, Elizaren xedeari juntatuz, hark bezala gure partearen kantatzea.

Abisu hoikien ondotik, pelegrin maitea, huna orai beila toki horietako zenbeit ixtorio.

## V

### Andre Dena Maria Pilharrekoa

Españolen aspaldiko agurra edo salutantzia da: ? *Ave Maria purissima*; eta ihardesten zaio erranez: ? *Sin pecado concebida*... Eskuaraz horrek erran nahi du: ? Agur Maria ezin gehiago garbia, ? bekhaturikan gabe kontzebitua.

Diote Elizaren lehen mendetik hasi zela Espainiako girixtinoen artean agur eder horren usaia: eta huna zertarik.

Jesukristo gure Jauna, Zerurat igan berrixua zen, eta haren Ama Saindua oraino lurrean bizi zen Jerusalem alde hartako dizipuluekin, bere seme ordetzat zagokalarik Jaundoni Joani Ebanjelista.

Jaundoni Jakobe zaharrena, Santiago Apostolua guk deitzen duguna, Jaundoni Joaniren anaia zen, eta hastexutik jina zen Espainian Ebanjelioaren predikatzerat.

Eskualherriak, diotenaz, denbora hartan Espainiako aldean segurik, Saragoze barne hartzen delarik, hedatzen ziren orai baino hainitz haratago.

Santiago Apostoluak egon alditto bat egin zuen Saragoze hortan, eta dizipulu bakhar batzuekin gau oroz atheratzen zen hiritik, Ibereko ur hegi batera. Han irakusten ziozkaten fedezko egiak eta othoitzean ere han elgarrekin egoten ziren. Bainan oraino nekhez zitzaion jendea biltzen girixtinotasunera.

Gau hetarik batez, haratxagoko ur bazterretik aditzen dute aingeruzko kantu bat; eta aingeruek hitz hauk zituzten kantatzen: ? *Ave Maria gratia plena*.

Santiago Apostolua berehala harat beha pharatzen da belhauniko. Ikusten du argi handi bat, eta argi haren erdian pilharri xuri xuri bat, eta pilharri haren gainean xutik Andre Dena Maria milaka aingeruz inguratua.

Aingeruen kantua ixildu zenean, Jesusen Ama Saindua hunela mintzatu zitzaion Jaundoni Jakoberi:





«Ene seme maitea, hementxe berean ene ohoretan egin behar dau-tazu eliza bat. ? Pilhar hau zerutik aingeruek niri ekharria, hemen uzten darotzut, hola hola egon dadin munduaren akhabantzara. ? Hunen ondora bil zaitezte othoitz egitera. ? Othoitzean hemen ariko zaizkidanen fagoretan, ene Seme Jainkoak mirakuilu asko eginen du, eta ez da behi-nere hiri hori Jesukristoren adoratzailerik gabe izanen.»

Hitz horiek erran eta, Ama Birjina aingeruek berritz ereman zuten Judeako bere egongietara.

Santiago Apostoluak bere dizipuluekin berehala hasi zuen eta egin eliza bat Pilharraren ingurua, hamasei urrax luze eta zortzi zabal, barnean hartzen zuena.

Errana da Andre Dena Maria gero ere behin baino gehiago ethorri zela toki hartara berera hango fededunen kantueri bere bozaren juntatze-rat.

Pilhar sainduaren eliza hortan zer nahi mirakuilu gerthatzen baitzen, bazter guzietarik jendea horra biltzen zen, eta Ama Birjinaren erranak zein ziren egiak denborak irakuxi zuen.

Geroztik Espainia guzia hainbertzetan edo paganoz, edo barbaroz, edo zer nahi nahasmenduz izan baita iraulia eta funditua... Askotan girix-tinoek nihun ez baitzuketen othoitzera biltzeko lekhurik mendi zokhoe-tara ihes eginik baizen. Saragozek bakharrrik, bethi salbu eta tente begira-tu izan du bere Andre Dena Maria Pilharrekoa. Mairu denboran ere han bethi berdin zelebratu dire fontzione sainduak. ? Hala hala ez daite erran Espa?olak oraino ere zenbat atxikiak diren Beren Ama Birjina Pilharrekoari.

Hemezortzi ehun urthe huntan zenbat bertze gisetako mirakuilu ikusi den Pilhar saindu horren ondoan gerthatzen; nork daki? ? Berrixuenetarik bat bakharra erranen dugu.

Mila sei ehun eta hogoita hemezortzian, hemeretzi urthetako labo-rari seme batek orgen azpirat erori eta zango bat izan zuen arrodez xeha-katua.

Zango hori Saragozeko ospitalean behar izan zioten moztu belhau-naren ondoxutik; eta geroxago zurezko zango orde batekin eskale phara-tu zen Santa Maria Pilharrekoaren athetan.

Egun guziz behin baino gehiagotan bazohan Ama Birjinaren aldare aintzina; othoitzean han egoten zen; eta bere zango moztuaren muthu-rra thorrutzen zuen hango lanpetako olioarekin.

Urthe bat eta erdixuren buruan, Martxoaren hogoita bederatziko gauan, bere zurezko zango ordea oherakoan khendurik, gure inbaliera lo zagon.

Ama suertatzen zaio aldetik argi batekin iragatera. ? Behatzen dio semeari, eta iduritzen zaio estalkipean bi zango oso eta berdinen bultoa ikusten diola.

Aldaritzen ditu estalkiak... Nor harritu hura harritu, semea egiazki bi zangoen jabe dagokola ikusiz.

Aita ekharrarazten du: biak loriatuak oihuz abiatzen dire. Semea atzartzen da: harenak gehiago. Zer othe den etxe hartan hauzoak ere heldu dire; hantxe daude oro espantituak... Gizon gaztea jeikia han zabi-lan bere bi zangoz ikusten ala amexa ala egia zen.

Argitzen hasi zuen bai, zalhu bere bi zangoz laster egin zuen elizara.

Berria berehala barraiatu zen Saragozen eta inguruna guzian; eta nola gizon gazte hori guziek ezagutzen baitzuten, Pilharreko eliza-athe-tan, bere zango motzarekin eske ikusirik, jendeketa handia bildu zen mirakuilu hori egia othe zen bada jakiterat.

Zangoa moztu izan zion atxeterrak, haren moztean atxikitzaile eta ikusle izan ziren guziek; zango ebakia ehortzi zutenek; denek zin eginik behar izan zuten finkatu beren lekhukotasuna, Saragozeko Aphezpikuaren aintzinean, eta heien erranak hitzez hitz gerokotzat iskri-buz hartuak izan ziren.

Andre Dena Maria Pilharrekoaren eliza baino aberaxago guti bide da munduan. Saragoztarren eta Español guzien deboziona oraino ere zein den handia Ama Birjina horrentzat eta eliza horrentzat, lekhuren gai-nean ikusiz beizik ez diteke sinhex.

Deboziona hori, asko arzoinez, behar liteke izan Eskualdun guzie-na ere, eta nihork guk baino hobeki ez luke ohoratu behar Gure Andre edo Señora Pilharrekoa.



## VI

## Jaundoni Jakobe Konpostellakoa

Jaundoni Jakobe handiena, orobat Santiago Españolek deitzen dutena, zen Jesusen Apostolu hautxienetarik bat.

Gure Salbatzailea zerurat igan eta, Izpiritu Saindua errezibiturik, lehenik zenbeit denbora ibili zen Ebanjelioaren predikatzen Judeako, Samariako eta Siriako bazterretan.

Jaundoni Extebe hil zutenean, toki hek utzirik, ixasoz jo zuen Espainiara, eta ez da dudarik hura zela lehena alderdi hautarat Jesukristoren legea ekharri zeraukuna.

Hargatik Jerusalemetik Apostolu lagunek igorri zioten laster galdea, eta harat itzuli behar izan zuen heien biltzarretan ederki argitzeko.

Jerusalemen ez zen hanbat zahartu, ezik Agripa hango erregek hilaz zuten Jesusen zerurat igaitetik hamekagarren urthean.

Apostolu horren gorputza, han berean lehenik ehortzia egon zen; bainan laster hartarikan gehienxua dizipulu batzuek ekharri zuten Espainiarat eta pharatu *Hiria-Flabia* deitzen zen toki batean. Hiri hark orai *El Padron* du izena.

Erreleki saindu horiek gerla denbora batez exai paganoen beldurrez nunbeit gorde zituzten eta galdu.

Girixtino mende bederatzigarrena zen atxeman zituztenean. Leoneko errege Alfonzo Xahuak hiru lekhoa hunatxago Konpostellarat altxarazi zituen. Apostoluaren izenetik da toki hori orai deitzen Santiago.

Jaundoni Jakoberen gorputza ekharri berria zuten Konpostellarat, gerthatu zenean mirakuilu handi hau.

Logroño gudu sekulan orhoitzekoan, Girixtinoak, Abderraman Mairuaren harmada hainitz handiagooz bentzutuak eta xehakatuak izatera zohazin.

Jaundoni Jakobe zerutik heltzen zaiote zamari xuri baten gainean, gerlari puxant baten itxuran, eta guduaren aintzinean pharutzen zaiote.

Bai bere zamariaren oldarrez, bai bere ezpata ukhaldi izigarriez, exai lerro osoak aurdikitzen ditu lurrera.

Girixtinoak Apostoluari gogotik eta suharki jarraitzen zaizko. ? Ez dire gehiago deusen beldur. ? Mairuek ez dirote ihardok. Batzu ihes badohazi eta bertzeak han berean herraxiak dire.

Handik ehun bat urtheren buruan, Mairuak egundaino bezala, izigarriko harmada bat bildurik, Almansor beren aintzindariarekin zohazin Espainiako Girixtino lekhu guzien funditzerat.

Konpostellan sarthurik, ja hiri guzia su eta sarraskitan zeramaten. Bainan Santiago Apostoluaren elizaren erretzera abian zirelarik, ihurtzuria ihurtzuriaren gainera karraskan hor hasten zaiote eta aire gaixtoa beren erdirat erortzen.

Harrituak berehala ihesari eman ziren eta utzi zuten hiria bere gisa.

Bertze zenbat mirakuiluz ez du noiz nahi gero ere Jondoni Jakobek saristatu Españolen Fedea, eta haren elizara dohazinen debozionea?

Hala hala denboraz nora zohazin pelegrinak bazter guzietarik hain usu, nola Santiago hortara?

Aita Sainduak dretxo eta fagore handiak bethi eratxiki dituzte hango debozioneari, eta oraino ere hek baizen ez dirote urra harat beilaz gateko botua.



## VII

### Jerusalem, Bethem, Nazareth eta Ama Birjinaren sor etxea Nasarethetik Lauretarat aldatua

Jerusalem, Bethem eta Nasareth, horra hiru lekhu saindu arrozoi-  
nekin girixtinoez egundainotik errekestatuak.

Gure Salbatzaile Jaunak han ibilirikako urraxak eta han utzirikako  
hartzak, haren denboratik beretik hasirik, izan dire hain lehiarekin miatuak  
eta ikusiak,... hain artharekin agerizatuak, eta hain fidelki bethi begira-  
tuak, nun, hainbertze denbora, gerlate, funditze eta nahasmenduren  
buruan, oraino gutiz gehienak aise ezagut baititezke.

Testament zaharreko denboretan, Jerusaleme zen Jainkoaren popu-  
laren edo Juduen hiri nausia. Jerusalemeko tenploa bezalakorik ez zen  
mundu guzian.

Bainan Jesukristo hilez geroztik, bai hiria, bai tenploa, laster eta  
arrunt barraiatuak izan baitziren; Jerusalem orainoa da lehengoaren gai-  
nean haren puskez eginikako bat. ? Salbatzaileak aintzinetik errana egia  
handia: ? Harria harriaren gainean ez zela han osorik geldituko.

Girixtinoek berek denboraz asko egin dute Lur Saindu hetaz jabe-  
tzeko, eta toki erori heien altxatzeko;... eta halere Mairu infidelak dire  
aspaldion alde hetako guzietako nausi.

Jainko baten madarizioneaz joa eta ezin libratua, halaxe dago  
Jerusalem hobenduna, eta ez dakigu noiz arteraino. Bizkitartean ez da  
bada mundu huntan tokirik hainbertze eta halako orhoitzapen sainduak  
dituzkeenik.

Zer exenplua, Jainkoak grazia hainitz egin dioten arimentzat, ez  
balin badute araberako fidelasuna artha eta eskerra dohain hekieri ihar-  
desteko!

Jesukristo gure Jauna lurraren gainean bizi zelarik, maiz Jerusalemen  
ikusi eta entzun zuten. ? Hiltzeko bezperan, han egin zuen bere azken afa-  
ria, eta ordenuz guri utzi bere Gorputz eta Odolaren Sakramendua.

Han pairatu zuen bere Pasionea eta bere Gurutzeko heriotzea. ?  
Han ehortzia izan zen. ? Han piztu zen, eta pizturik hainbertzetan bere  
dizipulueri agertu.

Handik zen igan Zerurat, eta hango etxe batean zauden Apostoluak,  
jauxi zitzaiotenean zerutik Izpiritu Saindua.

Geroztik Jerusalemera, Jesukristoren thonbara, munduaren bazter  
guzietarik ez dire pelegriaiak baratzen ibiltzetik.

Bethem Jerusalemetik bi orenxuren bidean da. Han da oraino  
Jesusen sor lekhu: harroka zilho bat, lehen jende arrotz pobreen aberen  
atherbe izana eta geroztik artha handirekin eliza aberax baten barnean  
gerizaturik dagokatena.

Nazareth, Galileako bazter batean da Maria Birjinaren herria.  
Jerusalemetik hara bada hamar bat lekhoa (45 kilometra).

Hara jauxi zen zerutik Gabriel aingerua Mariaren etxera, eta  
Jainkoaren Semea han egin zen gizon!

Jesusek bere bizi gordea ereman zuen bizitegi pobre haren eremu  
berean da egina eliza bat alde hetako ederrenetarik.

? Bainan Jesusen, Mariaren eta Josepen etxea bera eskas da handik  
aspaldion.

Lehenbiziko denboretarik hasirik, etxe dohaxu hura hein bat ohora-  
tua eta begiratu hantxe zagokaten bada Girixtinoek.

Ethorri zen ordean bertze denbora bat, zointan Mairu infidelek alde  
hetan nausi jarri profanatzera baitzeramaten.

1291ko urthean, gau batez, nihor ohartu gabe, Etxe Saindu hori bere  
tokitik eskastu zitzaioten zimendu xoilak han utzirik.

Aingeruek airetan hartu eta oso osoa ereman zuten zazpi ehun lek-  
hoa segurik hunatago, Dalmaziako lurretara, Tertsas deitzen den hiritto  
bati hurbil.



Maiatzaren hamarra zen, argia urratzean, Terxastarrak ohartu zirenean etxe horri, bezpera arraxean ez eta egundaino, etxearen iduririk, ez egiteko gayik nihork ikusi ez zuen toki batean.

Bertzenaz ere ez zen haren obradura alde hetan usatzen zenetarik, eta dena ere batere zimendurik gabe pheza oso bezala zagon xutik lurraren axal gainean.

Berria barraiatzearekin, jendea jendearen gainzka abiatu zen ikustera; oro harrituak zagozin beren hari beha, eta gero barnera menturatu zirenean aree oraino harrituago han zakuxaten gauzez.

Han bazen ganbara bat bere aldarearekin, eta aldare haren gainean Ama Birjinaren zurezko dirudi bat xutik bere Jesus Haurra besotan.

Guziak hantxe galdez baitzagozin nundikakoa eta zer othe zen bada hori holakorik, Alexandre beren Jaun Aphezpikua ordukotz denek eri exia zagokatena, hor heldu zaiote ororen erdira bet betan sendo eta azkar.

Erraten diote, gau hartan agertu zaiola Andre Dena Maria, eta haren ganik jakin du nola den etxe mirakuiluzko hori haren Nasaretheko etxea, Jainkoaren botherez orai harat aldaratua: eta egiazki hori hala dela sinhez dezaten hobeki, horra nun bere ohetik arrunt sendatua igorri duen heta-ra.

Terxaseko printzea orduan gerlara gana suertatzen zen. Mirakuiluaren berria laster helarazi zioten, eta erregeren baimenarekin lehen bai lehen ethorri zen egia othe zen etz ikustera.

Bere begiz ikusi eta halere ez baitzitzaion hori aski, nahi izan zuen Nasaretheko bereko ere berri jakin.

Lau gizon jakinzun hautatu zituen harat igortzeko, eta hetarik batto zen Alexandre Aphezpikua bera.

Etxearen negurri, hatz eta molde guziak xehe xehea harturik, lau gizon horiek badohazi Nasarethera.

Nasarethera direnean, galdetzen dute Ama Birjinaren etxea. Hango girixtinoek nigarrez irakusten diote etxearen lekhua. Hargatik zimenduak bedere oraino han dituzte.

Badohazi miatzerat zimenduen negurri hatz eta moldeak eia xuxen dohazin hek Terxasetik ekharriekin, eta guziak berdin berdina atxematen dituzte.

Lau lekhuko horiek Terxaserat itzuli zirenean Nasaretheko argiekin, ez zaiteken gehiago duda etxe hura Ama Birjinarena zela.

Bazter guziatarik jendea debozinez eta ikusminez hara zohan, eta zurezko beiragailu batzuez behar izan zuten inguratu Terxastarrek beren tresora.

Bainan hiru urthe eta erdiren buruan, Etxe Saindu hori aingeruek hartu eta airetan handik ixas-hegal batez gainez gain berritz ereman zuten Italiako bazter batera.

Larunbat gau bat zen. ? Hainitzek ikusi zuten argi eder baten erdian, aingeruek airetan zeramatela. ? Italia aldeko frango jende, aingeruen kantuek atzarrarazirik athera zen kanpora eta harriturik egon mirakuilu horri beha.

Etxe Saindua pausatu zen Rekanatiko oihan batean, eta inguru heta-k jende guzia goiz goizetik abiatu zen haren ikustera.

Hala hala, norik erran Terxastarren bihotz-mina ikusi zutenean bezperan beren etxe maitea airetan heien ganik urruntzen! Egungo egunean ere oraino, beren tokietarik ethortzen direnean haren ohoratzer, heien pleinu eta errenkura hunkigarriak aditzekoak dire.

Rekanatiko oihanaren jabeak bi anaia ziren. ? Biek gogoari eman zuten behar zutela ederki aberaxtu hekien ontasunean sartzen ziren pelegrinen gustuz.

Bainan irabazbide horren beraren gainetik laster elgarrekin makhurtu eta hauzitan hasi ziren.

Hainbertzenarekin, lau ilhabethe nunbeit han iragan zireneko, egundaino bezala, Etxe Saindua hor handik ere aldaratzen zaiote besain harri bat hunatago, bertze jabe baten lurraren gainera zoina Laureta deitzen baita.

Geroztik Ama Birjinaren sor etxea hantxe dago hainitz artharekin eta ederki begiratua.

Bera bere tokitik higitu gabe, eta bera hala hala utziz, inguratu dioz-kate kanpoko lau alderdiak marbolazko edergailuz eta bertzalde egin diote eliza handi eder bat zoinanen barnean orai gerizatua baitago.



Lehenago larre eta erremutegi beizik ez baitzen lekhu hori; geroztik da egina Lauretako hiria pelegriñai horren kariatz, Etxe Sainduaren inguruan eremu handia dagokala.

Damurik dire berriroski alde hetako lurrak esku gaixtoetarat eroriak!

## VIII

### Erroma

Erromaren izen horrek berak, nungo girixtinoari ez dio bihotza higitzten; eta nor da ahal balu bere bizian behin bedere Erroma ikusi nahi ez lukeenik?

Ez du oraikoa Erromak bere fama, bere handitasuna eta munduaren gaineko buruzagigoa.

Jesukristo gure Jauna sorthu zenean, munduko populu gutiz gehienek Erromari amor emana zuten: Guziak buruzagi bakhar baten azpiko jarriak ziren, eta buruzagi puxant hura zen Erromako Enperadorea. Hitz batez, Erroma zen mundu guziko hiri-nausia.

Bainan geroxagotzat eiki bertzelako nausitasunik bazagon Erromarentzat. Jesukristoren lurreko erresumak, Eliza katolikoak, han behar baitzuen egin bere bildumaren ohatzea.

Izpiritu Saindua jautxi zitzaionean, Apostoluak Ebanjelioaren bazter guzietan predikatzena barriatzearekin, Jaundoni Petrik, oren buruzagi gisa, Erromara jo zuen, eta handik zuen gero gidatzen Eliza guzia.

Galileako arrantzari zaharrak Erroma hortarik azkenekotz enperadoreak bezenbat, manatzen zion munduari.

Ohartu zen enperadorea bazter guziak beretzen ari ziotzala girixtino legeak, eta hartaz bertzerik ere bazela entzunik Erroman berean. Manatu zuen beraz girixtino atxeman ahalikako guzien hilaraztea.

Jaundoni Petri eta Jaundoni Paulo ere, biak noizbeit atxemanak eta preso hartuak izan ziren, eta gero biak egun berean hil zituzten; Jaundoni Petri buruz behera gurutzefikatuz, eta Jaundoni Paulo burua ezpatatz motztuz. Zer bathaioa heien odol ederra Erromako lurrarentzat!

Bi Apostolu horien gorputzak ez ziren hala hula utziak izan. Girixtinoak erne egon ziren heien zain.

Burregoak aldaratu eta gaua ethorri zenean, hartu eta ereman zituzten berek bakharrik zakiten toki batean ehorztera.



Toki hura zen harpe zilho bat, sartze gorde batetik lurpera puxka bat barnatuz eta zabalduz zohana. Jondoni Petrik bizi zelarik maiz han zebratzen zituen Meza eta Ofizio Sainduak.

Hiriaren sahexean, iphar aldetikan exkertxago, ageri da Batikaneko mendia edo bixkarra. Denbora hetan oihan edo larre bat bezala zen Jaundoni Petriren harpeko mendi horren alderdia.

Bainan hala hala, bixkar hartan berean, harpe saindu hartarik bi urraketan bazen bertzerik ere.

Neron enperadoreak hantxe zagokan bere jostetako lekua. Karrosazko partidak han jokharazten zituen.

Frangotan bera bere urrezko karrosan gabaz pasaietan han ibiltzen zen, eta argitzat, chunka girixtino biziak, bikhez estalirik eta xutik burdin phaxet batzueri amarraturik errearazten zituen.

Arren, handik hiru ehun urthe gabe, toki hetan beretan, Konstantin enperadore girixtinoak eliza bat ederra eginarazi zuen, Jaundoni Petri eta Pauloren gorphutzak zagozkan harpea aldare-nausi azpitzat barne hartuz, eta inguruan lur eremu puska bat eman zion eliza horri.

Han orduan eginikako obrak, denborak berak higaturik, aree handizkiago daude heien beren gainean eta hek hala hala utziz eginak orai dakuxagun guziak.

Han da Jaundoni Petriren Elza famatua, gizonen eskuz egundaino nihun egin izan den, eta naski sekulan egina izanen den obrarik miragarriena. Horra bi Apostolu pobreen thonba... Nolako eta nun othe da Neron enperadorearena? Hori nihork ez daki!

Jondoni Petriren Eliza horri datxikola, Neron enperadorearen jostetako eta pasaietako toki heien beren gainean dire orai, Aita Sainduaren phalazio, baratze eta haiztegiak.

Lehengo enperadore puxant heien jauregiak hiriaren bertze bazter batean hantxe daude trebes eta aspaldiko mendeez geroz eroriak. Izigarri da asentu puska alimale hekien ikustea.

Handik bi urraketan, gehienxua oraino xutik dagoena da jokhari plaza bat Kolosea deitzen dena, mendia bezein gorako harrasi batzuek hexia.

Harrasi haren mailetan ehun mila eta gehiago ikustiar jarririk aise kokatzen zen.

Eta plaza haren barnean hainbertze jende zeri beha egoten zen?

Paganoak loriatzen baitziren jende odolaren eta bereziki girixtinoenaren ixurtzen ikusten, enperadoreek egun guzietan Erromako populuari nasaiki ematen zioten axegin hori.

Koloseako plaza zuten josteta izigarri hortako lekhua... Batzuetan esklaboak, bertzetan gerletan harturikako presonierak, aldian chunka eta milaka, nahi bazuten eta ez, biluzgorriturik sabre kolpeka elgari hantxe harrarazten zituzten, eta azkenik bizirik gelditzen zenak ere, han berean bere burua hil behar izaiten zuen.

Girixtinoak zituztenean hilarazteko, ala gizon, ala emazte, ala zahar, ala gazte, ala haur, oro nahas mahas plaza haren erdian preso eman eta, zezen, hartz, lehoi, tigre, zer nahi holako alimale, galerien azpiko kayoletarik, libratzen zuten goserik hekien artera.

Zenbat mila girixtino martiren odolaz ez da bustia izan Koloseako lur hura!...

Erroman bezala orobat bertzetan ere, berrehun eta berrogoita hamar bat urthez, girixtino atxeman ahal guziak holaxe zituzten hilarazten: bainan azkenekotz halere mundu guzian girixtinotasuna emendatu eta nausitu!

Berrehun eta berrogoita hamar urthe hetan, fededunak tokirik gordeenetan beizik ez zitezken bil elgarretara. Erromakoek katakonbak zituzten beren eliza eta hilherri eta ihes lekhutzat.

Katakonbak dire gure mendietako mia zilhoak bezalako batzu, Erromako hiriaren zathi handi bat lurpez inguratzen dutenak.

Holakotan zituzten egiten lehen denboretako girixtinoek orai guk gure elizetan egiten ditugun ofizio guziak. Han ziren preparatzen martirioren hain gogotik pairatzerat.

Lurpe hetako galerien paretak, gure etxe-paretetako armarioak bezalaxuko batzuek denak zilhatuak ezagun dire oraino. Hetan zituzten ehoretzen beren hilak: eta Martiren erleki gehienxuek handik atheratzen dire.

Eta oraino bertze zenbat ikusgarri eder eta bihotz ukhigarri ez dagoen Erromak?



Jaundoni Petriren elizaz bertzalde: Latrangoa, munduko eliza guzien Ama. Orobat Jaundoni Pauloren eliza: ? Andre Dena Maria Gehienekoarena: ? eta bertze holako asko; xoragarri baita ikustea.

Bainan Erroman mundu katoliko guziari, guziz handi, guziz miragarri eta maitagarri zaiona da Aita Saindua;... girixtino guzien Aita eta Buruzagia... munduko gizonen artean izan diteken majestaterik gorena... Jaundoni Petriren ondokoa... Jesukristok bere lurreko erresumaren gobernatzeko bere ordain hemen utzia.

Aita Saindua!... Erromaraz geroz, ttiki eta handi, guziek hura nahi dute ikusi.

Arren zer gozo sekulan ezin ahantzia, gure Aita Saindu miragarriaren ikustea!... haren oinen besarkatzea!... hartaz ikusia eta benedikatua izaita!... Nun da erregerik bere manupekoek hala maitaturik?

Zer kanore luke, Aita Saindua balitz bertze munduko errege baten azpiko?... Zer irriak ez lituzke merexi holako majestate bat baino gorago jar uste lukeen printzeak?

Horra zertako Aita Saindua ez diteken izan bere munduko bereko erregetasun bat gabe... Arren zenbeitik hori diote sobera atzematzen, eta ondiko orai guziek badakigu zer egin dioten.

Gure Aita Saindu maitea biluzi dute bere munduko erregetasunaren ontasun eta indar guzietarik. Balentria ederra! ohore eta zuzentasun den mendrenik behar ez ahal izaten ez duena.

Aita Saindua da oraino, zuzentasunaren ohorearen, eta bere erresuma ohiko jendeen bihotzaren errege... Eta mundu guziko girixtinoetan nor liteke aski bihotz gaberik, eta aski arnegaturik, Aita Sainduaren ixutuki ez maitatzeko, haren axekabeez ez minhartzeko eta haren alde ez jartzeko?

## IX

### Betharram

Baionako diosesaren baxter baxterean Pautetik Lurderako bide sahexean da Betharram.

Duela zazpi ehun urtheke paperetan ja aiphu dire Betharrameko beilak.

Oraino aspaldiago, eta naski Mairu denboretarik laster, huna zer gerthatu zen.

Orai kaperako aldare nausiak dagokan tokia lehen harroka bat zen, xut eta gora mendiaren paretatik ureraino heltzen zena; dena ere sasiak eta lapharrek hartua.

Halako aldi batez, artzain batzuek ikusi zuten gar eder bat atheratzen harroka horren mazelako lapharraren artetik.

Badagozi oraino beha, eta ohartzen dire, su hura banbanbam bethi hala ari, eta hargatik lapharra ez duela den mendrenik erretzen.

Zer mirakuilu othe duten bada hori, badohazi hara berera, eta laphar heien artean atxematzen dute Ama Birjinaren potret edo dirudi bat bere Jesus haurra altzoan.

Laster egiten dute herriko aphezari erraterat, eta berria zalhu barraiatzen da.

Lehen bai lehen ur gaiaren bertzaldean obratzen dute harrizko aldarretto bat, eta proasione eder bat eginik, han pharutzen dute beren Ama Birjina.

Ez zen ordean hura Ama Birjinak nahi zuen lekhoa.

Biharamun goizean hor atxematzen dute aldea huxa, eta Ama Birjina lehengo bere harroka eta lapharretara itzulua.

Behin baino gehiagotan berritz oraino bere aldarerat ekharri, eta nihor ohartu gabe, zain zaudelarik ere, bethi eskasten zitzaioten handik,



eta bethi ohiko tokira heldua kausitzen zuten. Ez zitzaion nihori iduritzen toki hura harentzat gisa zela.

Ez da dudarik harat hunat horietan jendea erne zagola jakiteko othe zen etz nihoren enganiorik edo gaixtakeriarik.

Azkenekotz gogoratzen zaiote hobe dutela herriko elizan ezarri. Berritz proasionean harat baderamate, eta eliza ongi hexirik, athetan kanpotik zain han dagozi.

Biharamun argiko ordean, egundaino bezala Ama Birjina, bere Betharrameko mendi paretan.

Beraz baitezpada han nahia zela, eta han berean kapera bat galdetzen zuela ezagaturik, berehala hasi ziren lanean.

Hasteko, mendiaren zathi bat behar izan zuten zelhaitu eta harroke-ri hauxiz bide eginarazi, eta gero kapera bat ederra han pharatu zuten.

Kapera horren parrean gaindi dohan ur handiak bazterrak xut ditu eta zola izigarri barna. Ixil ixila, eta geldia bezala dago bide puska batean, iduri hark ere bere gisa nahi duela errespetatu toki haren saindutasuna.

Behin neskatxa bat ur hortako usinik handienerat erori zen eta ithotzera zohan. ? Oihuz hasten da Andre Dena Mariari. ? Jainkoaren Ama heltzen zaio. ? Haitz baten adarra aphaltzen eta hedatzen dio eskuen meneraino; eta hari lothuz neskatxa atheratzen da ur bazterrera.

Gero bere esker onen seinaleztat, eta mirakuilu horren orhoitzapentzat, kaperari eman zion present haitz aldaska haren iduri bat, eta naski hura bera, hostoak oro urrez.

Mirakuilu hori bezala bertze hainitz gertatzen zen Betharramen... Eririk exituenak noiz nahi bertzek hagetan harat ekharri, eta bet betan han sendaturik, berak airoski beren oinez bazohazin etxerat.

Hala hala jendeak urrundik ere hartu zuen harat beilaz ibiltzeko menta handia. ? Fantziaren zathi on bathek segurik, denbora luzez han bide zuen bere Fedearen azkartegia.

Gero hargatik heldu da Higanot denbora. Higanotak ziren duela hiru ehun urthe gure tokietan indar handirekin sarthu eta ibili ziren protestant batzu erlixione katolikoari gerla egiteko.

Eskual herrietan deus ezin irabazi izan zuten. Eskualdunen Fedeak bethi azkarki ihardoki zioten, eta ahalkerikan baizen ez zuten Higanot horiek bildu gure arbasoen artean. Hartako zen Eskualdunen fama hain eder eta ohoragarri hedatu zokho eta bazter arrotz guzietara.

Biarnoan gaina hartu zuten higanotek. Sarthu ziren Betharramerat ere eta su eman zioten kaperari.

Ama Birjinaren dirudi saindua, doi doia zuen aphez batek hartu eta gorde hauzoko etxe batean. Gero berritz oraino higanoten loxaz handik hark berak ereman zuen Espainia Jakarat, nun laster jendea ohartzen hasi baitzen Frantziatikako Ama Birjina horren podoreari.

Arren geroztik, nahiz Birjina franxesa deitzen zuten, espñoolek ez bide zagokaten gehiago guretzat; ezen hantxe omen dute oraino ohortzen hura bera batzuen arabera Jakako elizan, bertzeen arabera Tagostakoan.

Ama Birjinaren dirudi mirakuiluzko hori Betharramerentzat galduta izanagatik; kapera saindua ere errea izanagatik; ez zen halere Jainkoaren botherea batere handik beretik aldaratu.

Mirakuiluak berdin aintzinat, lehen bezein usu eta handi obratzen ziren kapera errearen tokian, eta berdin aintzina, jendeak atxikitzen zion hango debozionarioari.

Gau gehienxuez argi argia pharatzen zen asentu barraiatuek zagokaten eremua, eta aditzekoak ziren hango boz xoragarri eta kantu aingeruzkoak.

Higanoten indarrak noizbeit ez deustu baitziren, Betharramdarrek 1614ean, errege Louis XIII garrenaren ganik ardiexi zuten kapera berriaren eginaraztea.

Erregek bere gostuz zituen eginarazi hango obra baliosenak, bai eta kaperatik goraxago mendiaren paretan hain eder den bertze kapera tti-kiagoko hura, San Luis bere arbasoaren izenekoa.

Urthe pare baten buruan, mendi horren bizkarrean, Hauxeko Artxaphezpikuak uztail erdixuan landatu zuen gurutze bat.

Handik ondoko buruilan, denbora garbi eta eder batez, egerditan, Montoteko hiru gizon iratzephaile bazkariten ari ziren Betharrameri ain-





tzinez dagon larrepareta batean... Nihun ez zen hedoi bat ageri; haize den mendrenik ere ez zen. Halere aditzen dute airean harrabox izigarri bat.

Behatzen dute Betharrameko gaineko aldera... Zirimola batek han ari diote aurdikitzen gurutze landatu berria.

Azkenekotz, gurutzea erortzen da lurrera, bai eta hartan berean zirimola baratzen. Gure hiru iratzephaileak harrituak, beren jana utzirik beha dagozi oraino.

Aphurto baten buruan, gurutzea han berean bera xutitzen zaiote argi eder batez inguratua, eta khoro dirdira handiko bat dakharkela gain gaineko buruan.

Gurutzearen mirakuilu horrek zioten Betharrameko kapellanoeri eman gogorat, Galbario iduri baten mendi hartan egitea. Hango estazio-ne ukhigarrien deboziona, mirakuilu batzuek laster seinalatu zuten.

Zazpi urthe hartan bixta arras galdua zuen emazteki bati, galbario hortan gora zohalarik proasione baten ondotik, bet betan bere bixta han itzuli zitzaion... Geroxago orobat han berean emana izan zitzaion gizon inbalier, bi galtzar makhilekin beizik higi ez ziteken bati, bere membro guzien balio osoa... Eta bertze zenbat holako!

Bertzalde Betharrameko ur hegian, eta kaperaren parxuan bada ithurri bat asko gaitzen mirakuiluzki sendatzeko berthutea orai artio ezagutu diotena.

## X

### Bugloseko Andre Dena Maria eta Puyen San Bizente Pauloren sor etxea

Akhizetik haratxago bi orenen bidean da Buglose (\*).? Nihork xuxen ez bide daki noizkoa zen Bugloseko deboziona abiadura lehenbizikoa.

Guk dakiguna da, duela hiru ehun urthe baino lehenago ere, bazela han Ama Birjinaren potret edo dirudi bat famatua.

(\*) Burdin bidez, Baionatik Buglosera ez da behar bi oren baino gehiago: ezen goizeko seiak eta erdietako treinean sarthuz, Buglosten jaux diteke bederatziak gabe. Gero hargatik handik hunat hamar orenetako treinez abiatzekotz ez daite hango deboziona egin presatuki beizik. Beraz hoberena da arraxaldeko bi orenak eta erdietako treinen guait egoitea, edo han berean, edo hunatxago San Bizente Pauloren sor lekuan

1570eko heinxu hartan, Protestant edo Higanotak, Akhizeko eta Maranxineko alde hetan, bertze askotan bezala bazabiltzan eliza erretzen, atxeman ahalikako gauza saindu guzien xehakatzen, eta girixtino katolikoeri gerla egiten.

Hekien beldurrez zenbeit fededunek Bugloseko Ama Birjina gorde zuten, eta haren gordegia bertze nihori irakuxi gabe hil ziren.

Ama Birjina hori galdu, eta deboziona ere galdu zen... Hargatik berrogoi eta hamar bat urtheren buruan, huna nola Jainkoak berak agerarrazi zuen gordea zagon lekhitik bere Ama Sainduaren dirudi preziatua.

Bugloseko larre eta ihiztoketan gizon batek bere idiak alha zagozkaririk, idi hetarik bat bere lagunetarikan aldaratuz bethi bazohakon sasi batean barna, eta handik bethi marrumaz zagokon zerbeiten galdez bezala.



Zer othe duen bada han idi horrek, arbola baten gainera iganik behatzen dio gizonak, eta ikusten du milika eta milika hantxe ari zaiola jendearen itxurako zerbeiti.

Jende iduri hura inthan kasik dena sarthua dago; burua du doi doa kanpoan, eta dena ere ihiek itzalixea.

Gizona jausten da arbolatik: lasterka badoha jendeketa, eta heldu da lagun multxu batekin.

Oro elgarrekin, ez errexki, sasipean sartzen dire, eta ikusten dute idia han ari dela buru eta arpegi eder bati oraino milikaka.

Abiatzen dire buru hori behar dutela handik altxatu; bainan ez dirote higi. Buru hori bertze zerbeiti eratzikia dago. Bazterretarik barta khen-zen diote, eta bultoa barnago eta bandiago dohakate.

Azkenekotz, pheza oso, indarka dena atheratzen dute eta garbitzen.

Aspaldiko Ama Birjina Buglosekoa! sekulakotz galdua uste zutena; hura eta bera dute, oso osoa orai agertzen zaiotena. Tokiko zaharrek aise ezagutzen dute bere tronuan hala hala jarria eta dena harri pheza batean landua.

Akhizeko Jaun Aphezpikuak manatu zuen dirudi mirakuiluzko hori, larre eta intha heien erditik ereman zezaten Puieko elizara.

Jaun Aphezpiku horrek erran egunean, beren Ama Birjina orgetan ezarririk, abiatzen dire Puiera buruz. Bainan lau edo bortz ehun urraxen bidea egin orduko, uztarriko idiak bet betan baratzen dire.

Lehenik akhilo sistaka, gero arroderi gizonak lothuz, gero lauzkatuz, zer nahi egiten dute aintzina gan beharrez... Ez idi, ez orga, deus ez deza-kete higiaraz.

«Jainkoa ari da, diote orduan guziek; Gure Ama Birjinak hemen nahi du: bego beraz hemen.»

Berehala han berean egin zioten eliza bat 1622eko Mendekoste bihar-ramunean handizki estrainarazi ziotena.

Eliza hura hala presaka egina, batetik zaharregiturik, bertzetik orai-ko asko pelegrinaientzat ttikiegiz, duela zenbeit urthe, berri berria egin dute handiago eta ederrago, toki beraren gainean.

Eliza hortarik bortzpasei ehun urrax haraxago da kapera bat deitzen dutena *Mirakuiluen kapera*; eta arras hara gabe ithurri bat mirakuiluzkoa. ? Ithurri hori han berean sortzen dena da, Ama Birjina gorde eta atxeman zuten lekhuana: ? eta kapera da egina, dirudi saindua bartatik athera eta lehenik pausatu zuten tokian.

1576ean, Bugloseko Ama Birjina galdu berri zuten hartan, Buglosetik oren erdi baten bidean hunatago, Puieko laborari etxe batean sortu zen San Bizente Paulo, munduko miseria suerte guzieren solegitzailea.

Errankina, saindu handi eta famatu horren etxea hantxe dago orai-no ere, erreleki bat bezala osorik hala hala bere xaharrean beiratua.

Haren aintzinean bada haitz zahar bat, barnea huxa, bainan azal adarrez bethi fresko, eta oraino arbola gazte bat bezala hostatzen dena. San Bizente Paulo bere haur eta muthiko denboran, abere zain, edo othoi-tzean, ardura haitz horren itzalean egoten zen.

Egiazki ukhigarri da etxe saindu haren eta haitz benedikatu horren xutik oraino han ikustea.

Orobat ikustekoak dire hoikien segidan; behinik behin, kapera bat Frantzian den ederrenetarik, eta bertzalde bertze asko obra, bizitegi, lan-tegi, eskola, ospitale, oro jende beharrentzat eginak.



## XI

### Andre Dena Maria Salhetakoa

Mila zortzi ehun eta berrogoita seiean, Buruilaren hemeretziaren, larunbata zen; araxaldeko hiru orenetan, hameka urtheho muthiko bat Maximino deitzen zena, eta hamalau urtheho nexkato bat Melania izena zuena, behi zain zagozin Salhetako mendia erraten dioten batean.

Mendi hori da Grenoble alde hetan, gutarik Frantziaren bertze buruan.

Bi haurrak xirripa baten hegian jarriak zaudelarik, ohartu ziren hetaritan ez urrun bertze bixkarrean jarria zagon emazte mirakuluzko bati.

Nahiz arraxalde erdiko iguskia oraino bere ederrenean zen, hura baino argiago zen distiru batek inguratzen zuen emazte hori. ? Haren zangoak sartzen ziren udan bethi kasik idorrik zagon erreka batean.

Orduan hargatik nahiz agorte zen, ur xirripa garbi bat, emaztearen zango petik hasirik, bazohan erreka hura beheara, eta egungo egunean oraino hura da ithurri bat bethi ur bera nasaiki dariona, eta gaitzik exigarienetarik asko eri sendatu dituena.

Maximin eta Melania ohartu zirenean emazte hari, burua aphalduarik zagokan eta arphedia gorderik bi eskuen barnean. Nigarrez ari zen.

Haurrak beren jar lekhitik jeikirik hurbiltzerat abiatzen zaizko; baina arras haren gana gabe iziturik baratzen dire.

Ez zuten egundaino halakorik ikusi, eta beren deus ez jakinean ez zitzaizoten gogoratzen Jainkoaren Ama bera zela heien haurtasun hoben gabekoari hala agertzen zena.

Hainbertzenarekin Ama Birjina han berean xutik pharutzen zaiote eta huna zer erran zioten:

«Ez izi, haur maiteak: zatozte aintzina. Hunat ethorria natzaizue berri eta mezu handi batzuen zueri ematerat.»

Orduan bi haurrak hurbiltzen zaizko, nexka eskuinera, muthikoa exkerrera.

Ama Birjinak erraten diote:

«Ene populua ez bada onerat itzultzen, ez dirot nik gehiago atxik nere Seme hasarretuaren besoa.»

Gero Jainkoa bera bere Amaren mihiz mintzo balitz bezala:

«Zer bada! nik zueri astean sei egun ematen; zazpigarrena neretzat galdetzen dautzuedalarik:... eta zazpigarren hura ere zuek ez niri ematen!...»

«Hori zaio hori gogorki gaitzitzen nere Seme Jainkoari; horrek ezarri du haren besoa hain dorphe eta deusek ezin atxikizko heinean. Eta oraino bekhatu hortaz bertzalde, zenbat ahopaldi ixusi eta blasmemio! zenbat penitenziari ihes egite eta guritasun gixtinoen artean!»

«Jadanik hunkitzen hasiak zarezte ene Semearen besoaz zuen sasoin eta fruituetan. Gehiagoko zigorradak dagozi oraino zuen gainerat erotze-koak, ez bazarezte Jainko legean bizitzen.»

Ama Birjinak bertzerik ere bi haur horieri erran zioten, bainan beharritat, batek bertzearen sekretua ez aditzeko eta sekulan ez jakiteko ere gisan.

Gero handik abiatu zitzaizoten mendiari gora. Haren oinek ez zuten belhar hondo bat zaphatzen ez higiarazten, eta iguzkitan zohalarik haren gorphutzak ez zuen itzalik den gutiena egiten.

Beren hari beha xoratuak, bi haurrak bazohazkon ondotik. Melaniak gal beldurrez, pixka bat ja aintzintzen ere zuen.

Berrogoi bat urraxen buruan, Birjina Saindua, lurretik bortzspasei zehe gora airean pharutzen zaiote, batean Zeruari, bertzean lurrari beha, eta emeki emeki, urthuz bezala han berean sunxitzen.

Maximino eta Melania, biak bedera etxetako sehi baitziren, arrax aphalekotz bakhotxa bere bidez itzuli ziren etxera.

Etxekoeri, hauzoeri, haur lagun guzieren mintzatu ziren beren mirakuluz, eta biharamunean beren jendea abiatu zen Salhetako mendira hekien ondotik.

Hargatik ez baitzen zuhurtzia haur horien hala hula sinhestea; eliza gizon guziak behinik behin luzez gibel egon ziren, eta haste hastetik, munduari berari aintzinduz egin ahalak egin zituzten, deus gezurrik balin bazen ere, gezurraren atxemateko.



Mundutarrek ere beren aldetik zen nahi urrax eta amarru erabili zuten bi haur hoiek enganatu edo beren hitzetan bedere nahasarazi beharrez. Baina haur hoien erranen egia azkenekotz orori nausitu zen.

Salhetako mendiari, hango ithurriari, hango debozioneari, Jainkoak eratziki zion mirakuiluzko bothere bat nihork ukha ez zezakeena.

Inguru herrietako jendeek laster bere gisa utzi zuten igandetako lana, eta eman ziren arras girixtinoki bizitzeari.

Bazter guzietarik pelegriak egun oroz ehunka eta milaka ziren zohazinak Ama Birjinaren ager lekhura. Agertze horren lehen urthabetetzeko Igande bakharrean baziren hiruetan hogoi mila eta gehiago.

Elizak azkenekotz handizki onhexi zuen Salhetako Andre Dena Mariaren debozionea, eta Aita Sainduak berak nahi izan zuen jakin zer othe ziren bada Ama Birjinak Maximinori eta Melianari gomendaturikako sekretuak.

Hark berak beizik ez jakiteko moldean biek berex igorri ziozkaten sekretu hek iskribuz Erromara. ? 1851an, Agorrilaren hemezortzia zen Aita Sainduak irakurtu zituenean. ? Nigarrez hasi zen; eta gero haxbeherapen batekin hau entzun zioten erraten: «*Ab! gaixo Frantzia!*»

## XII

### Lurdes

Jerusalemaren eta Erromaren ondotik, ez da orai munduan Lurdes bezalako lekhu Fede-pitzgarririk.

Lurdes, duela oraino hogoi urthe ikus, eta orai ikus:... hori bera zer mirakuilua!... Eta orai han dakuxagun espantagarrizko gauzen hastapena;... eta mundu guzia orai harat deraman lehiaren abiadura, hamalau urthekeo nexka pobre, nexka ahul eta deus ez jakin baten erranetik!... Hori bera naturalki nola diteken; erran bezate mirakuiluetan sinhesterik ez dutenek.

Nexka horrek Bernadeta zuen izena. Aita eta Ama eiharazain behartto batzu zituen; eta bera haur erixka mendre bat zen sortzetik. ? Hauzo herri batean iduki zuten lehenik ama?otan, eta gero artzain hamalau urthe egin arteraino.

Lehen komunioea egin ordu baitzuen, eta oraino deus ikhastekoa baitzen salbu arrosorio erraten; etxerat ekharri zuten 1858-an urtharril hondarrean, Lurdeseke seroren eskolarat ibiltzeko.

Oxailaren hamekan, ortzegun gizen zen, eta hameka orenetako heinxu hura. Bazkariaren egiteko egurra eskas izanez, Bernadeta amak igorri zuen espalketa Gaiako ur handiaren zariketara.

Bernadetak hartu zituen bi lagun: bat bere aizpa hameka urthetakoa, eta bertzea hamahiru urthekeo nexka hauzoko bat.

Masabieleko harroken parrera zirenean, Bernadetari aintzindu zitzaizkon bere bi lagunak, eta hetara heltzeko ur batean gaindi behar baitzuen pasatu, hasi zen oinetakoen khentzen.

Bet betan entzuten du haize burrunba iduri bat. Behatzen du goiti ur hegiko zur xurietara; baina oro geldi geldia daude. Ustez deusik ez zen, ukhurtzen da berritz.

Hainbertzenarekin, berritz harrabax bera aditzen du eta oraino azkarrago. Behatzen du orduan harrokako aldera, eta harroka hark zolan baitzuen atherbe iduri zilho handi bat, ikusten du barne hura dena argi



argia; eta goraxago, bertze zilhoska baten erdi erdian xutik, Andre handi bat, xuriz bezti, gerrikoa zero kolore, mantalin xuri bat burutik, arrosorio bihi xuri batzu eskuan, eta arrosa hori urre iduri bat oin bizkar bakhotxean.

Andre horrek Bernadetari kheinu egiten dio hurbil dakion. Haur gaixoa harritua dago. Naski bixta bide duela zerbeit lanbroz edo lilluraz hartua, hasten da bi begiei harraskaka; bainan halarik ere geroago eta age-riago dagoko ikurgarri xoragarri hura.

Nolazpeit belhauniko pharutzen da; eta bere arrosorioak eskuetan harturik, hasten da ja hain laket zitzaion othoitz haren erraten.

Bere bortz hamarrekook nunbeit han erran dituenan, agerkaria irri ezti bat eginik emeki emeki sunxitzen zaio bixtatik.

Eta Bernadeta han baitzagon aintzina bere harroka zilhoari beha, azkenekotz lagunek oihu egin zioten higi zadien bada handik hekien egurketa laguntzera.

Hetara bildu zenean, ezagutu zioten zerbeit gerthatu zitzaiola, eta jakin artio ez zioten utzi bakerik.

Nihori ez erratzekotan, Bernadeta bere mirakuiluaz mintzatu zitzaioten; bainan etxera eta, bi nexken lehen lehen lana izan zen amari eta hauzoko guzieren denen salatzea.

Amak ez zuen deus sihexi nahi izan, eta horiek guziak haurkeria batzu zirela, jendea gaizki mintzaraz ere zirotenak, debekatu zion Bernadetari Massabileko harrokarat gehiago hurbiltzea.

Humilki haurrak amari hitz eman zion obedituren zuela.

Ondoko igandean, oxailaren 14an, Bernadetaren aizpak, haur lagunek eta zenbeit presuna larrik ama hainbertze othoizturik, ardiexi zioten heiekin bedere gatea. ? Amaren baimenarekin lorietan abiatu zen Bernadeta berritz ere bere Andre ederra ikus uste zuen lekhura.

Zohazilarik, anpoila bat ur benedikatu harturik, lagunek erran zioten: ? «Andre hura berritz egun ere agertzen balin bazaitzu, botatu behar-ko diozu ur benedikatu hortarik eta erranen diozu: ? Onekoa bazare hurbil zakizkit. ? Gaixtokoa bahaiz, aparta hadi.»

Harroka zilhoaren aintzina zirenean, deus ez baitzen han oraino ezagun; Bernadetak erran zioten: ? «Eman gaiten belhauniko eta erran dezagun arrosorioa.»

Belhaunikaturik othoitzean hasi zen bezein laster, Bernadetari begit-hartea argi argia egin zitzaion denek ikusten zioten distiru miragarri batez. Ezagun zuen bere Andre handia han zuela.

Berehala bere laguneri oihuz hasten zaiote. ? «Beha! beha! horra nun den!» Bainan bertzeek ez baitzuten deusik ikusten, berritz ere Bernadeta oihuka zagokoten: «Behazue bada, horra, horra! ? zein ederra den!... Behazue zer irri ezta eta maitea egiten daukun... Agurka ere beha zein ederki ari zaikun...»

Orduan bere lagunetarik batek eman zion eskura ur benedikata, hartarik bota zezon. Bernadeta hasten da botatzen, dioelarik: «Jainkoaren ganikakoa bazare, hurbil zaite...»

Ama Birjina hurbilago pharutzen zaio, eta haur gaixoa loriatua berritz ere bere laguneri oihuz... «Beha! beha! begiak nola altxatzen dituen zerura; beha, nola den nere ganat aphaltzen... Zer! ez duzue orok ikusten?...» ?

Bernadeta berritz belhauniko hasten da arrosorio erraten, eta erran duenean, Ama Birjina itzaltzen zaio bixtatik.

Ondoko ortzegunean, oxailaren 18an berritz oraino agertu zitzaion eta bethi toki eta itxura berean. Egun hartan Bernadetak bi emazteki zituen lagun. Zioten, menturaz arima penatu zenbeit zabilala han othoitz edo meza galdez.

Emazte hek erranik, nexka umilak bere Andre handiari eskaini zion paper bat, hartan othoi iskriba zezan zeren galdez zabilan.

Andre Dena Maria orduan mintzatu zitzaion Bernadetari eta erran zion:

«? Ez dut zuri errateko ditudanen batere iskribatzearen beharrik: xoilki zato hunat oraino hamabortz egunez. Nik zuretzat dagozkadan gozoak ez dire mundu huntakoak bainan bai bertzeokoa.»

Hitz horiek erran eta, agerkaria egundaino bezala itzali zen.

Biharamunean Bernadetari aita eta ama jarraiki zitzaizkon. Hek harrokaraz zireneko ja bazen han jende multxu bat.



Belhaunikatu zen bezein laster haur horren aphegi guzia berritz ere argi argia egin zen: xoragarri zen hari beha egoitea: ezik Andrearen agertzeak aldi guziz itxura bat harrarazten zion ezin gehiago loriazkoa eta xarmagarria.

Bernadetak ikusten zuen agerkaria, hark beizik, bertze nihork ez zuen ikusten. Bera hortaz harritzen zen. Bainan aski zuten jendek Bernadetari berari behatzea haren itxura guzian klaroki ikusteko eta aise ezagutzeko agerkari zerutikako baten dirdira.

Holako mudantzarik izaiten zuela berak batere ez zakien:... egundaino geroztik ere ez du jakin, eta behinere ez zaio gogoratu hari zagoela beha jende guzia.

Oxailaren hogoian (larunbata zen). Ama Birjina bortzgarren aldiko agertu zitzaion. Aldi hartan lau edo bortz ehun ikustiar bildu ziren haren gana.

Lurdesen eta inguru herri guzietan ez zen bertze aiphurik Masabieleko harpeko mirakuiluaz baizen, eta Bernadeta harat zohan guziez, jendea geroago eta oste handiagoan zarraion ondotik.

Igande oxailaren 21ean, milaka ziren batzu hari jarraikiz, bertzeak aintzinduz harat jo zutenak.

Igande hartan, Bernadetari Andrea bertzetan baino tristeago iduritu zitzaion, eta harpean barnaxago sarthua ikusi zuen.

Bernadeta bere belhaunez herrestan hurbiltzen zaio eta erraten dio: « ? Nere Andre ona, zer duzu hoin goibel izateko: Erraguzu othoi zer nahi zinuken egin dezagun?» Jainkoaren Amak ihardesten dio: «Othoitz egin behar da bekhatorosentzat.»

Gauza hoikien fama entzunik, eta ikusiz jende guzia bere fedeak nola zuen ja higiarazten, gobernamentuko gizonak khexatu ziren.

Zer nahi egin zioten nexka ahul eta ahalketi horri, baitezpada zerbeit malezia edo gezurretan atxeman beharrez; orobat balakatuz edo larderiaz beren gosturat mintzarazi beharrez.

Bernadetaren lañotazunetik ez zuten athera ahal izan nihola ere bethi egia bera eta berdina beizik; eta beren eskola eta abil-uste guziarekin, hari egin zioten gerlan ez zuten irabazi ahalkeria eta jendeen irrikirik baizen.

Jendea ere nahi izan zuten trabatu Bernadetari grotara jarraikitetik. Grotta edo Harpea bera debekuan ezarri zuten; bainan horiek guziak debalde izan ziren askenekotz.

Harperako bidea, hango ur hegiak, harrokak, zarikak, sasiak eta ur handiz bertzaldeko alhorrak jendez noiz nahi estaliak ziren; guziz Bernadeta harpera beharra zela zakiten hamabortz egun hetan.

Hamabortz egun hetarik, Bernadetak bia beizik ez zituen izan bere andrearen agertzerik gabekoak. Bertze hamahiruetan Ama Birjinak ez zion faltarik egin bere haurraren fede garbiari.

Astearte oxailaren 23an, Bernadeta argiko harperat heldua zen, eta ja bazen han zortzi edo hamar bat mila ikustiar.

Belhaunikatu zen bere ohiko lekhuak; esku exkerrean ezko benedikatu bat piztua zagokan, eta eskuinean arrosorioak zituen. Andreak orduan lehenik erran zion gauza sekretuzko bat hari bakharririk behatzen zitzaiona, eta gero bertze hitz hauk: ? «Zohaz, ene haurra, aphezeri eraterat, hementxe behar dela egin eliza bat, eta proasioneek hunat beharko dutela ethorri.»

Bernadetak harpetik lekhora xuxen jo zuen Lurdesko Jaun Errotoraren etxerat, eta andrearen hitzak hari erran ziozkan. Bainan Jaun Errotorak hotzkitto hartu zuen.

Asteazken, oxailaren 24an, Bernadeta bere ikusgiaren artetik hasi zen lurrari musuka, eta bi belhaunez zohalarik harperainoko petarra gora herrestan, entzun zioten hiruetan erraten: «Penitentzia! penitentzia! penitentzia!»

Beraren ganik gero jakin zuten hitz horiek Andreari entzun ziozkala lehenik oihuz bezala erraten.

Ortzegun, oxailaren 25ean, huna zer gerthatu zen.

Andreak erran zion Bernadetari: ? «Zohaz haurra orai horrako ithurri hortan edatera, eta begithartearen garbitzera, eta gero jan zazu ur horren bazterrean den belharretik.»

Bernadetak behatzen du eskuin, behatzen du exker; eta baitzakien ez zela harroka hetan ithurrik, bere ustez abiatzen da jauxi behar duela Gaieko ur handiraino, zoina han baitzuen hamar bat urraxetan.



«Ez hor, ez hor, erraten dio Andreak; zato hunat; ithurria hementxe duzu barne huntan.» Eta eskua harpe xokhoko alderat hedatuz kheinu egiten dio han mia dadin.

Haurra itzultzen da; badoha harpe xokhorat, eta han ez du kausitzen lur busti puxka bat beizik. Halere hartan berean aztaparrez putxu bat egiten du. Putxu hori berehala bethetzen zaio ur lohi lohi batez. Ur hortarik edaten du. Hortaz beraz murruskatzen du begithartea, eta gero jaten du bazterreko belharretik.

Biharamunean Lurdeseke gizon harri pikatzaile bat, hogoi urthe hartan begi bat galdua zabilana, entzunik harpeko ur sorthu berri horren fama, badoha harat; ur basaxu hortaz bustitzen du bere begi ixua; bet betan horra nun bixta heldu zaion begi hartara; eta medikuak berak aithortzen du sendatze hori egiazko mirakuilu bat dela.

Handik lehenbiziko egunetan oraino Bernadetaren puxutik atheratzen zen ur hori, ez zen xirrixta mehe eta urri bat beizik: hargatik dena ere emekitto emekitto bethi emendatuz heldu zen eta garbituz.

Lurdestarrek, aintzineko tokiko berri baitzakiten, harpe idor hartan urik sor zitekela ez zezaketen sinhex. Hainitzek ez zuten aditu ere nahi ikustera gaterik. Zenbeitek ikusi eta ere zioten, ur nigar hura deusik ez zela, eta segur agertu bezala laster agorturen zela.

Bainan harri pikatzailearen sendatze mirakuiluzkoa Lurdestar guziek begien bixtan zuten ezin ukhatua eta ur haren bothereaz gerthatua.

Sendatze horren esker onetan, berehala harri pikatzaile guziek elgar aditu zuten, eta harrizko aska handi bat eginik hantxe ezarri zuten harpeko ura sortzen zen tokitik beheraxago.

Aska hori urez bethe zeneko, huna bertze mirakuilu bat.

Lurdeseke etxe batean, haur inbalier bat, bi urthetan oraino xutik abiatzekoa, hiltzen ari zen. ? Ja zenbeitek hiltzat ere utzia zuten.

Amak hartzen du bere taulieraren barnean, eta burutik gana iduri, badoha lasterka harpe sailduko ithurrira.

Hila bazen hila, bertzela ere zer nahi gisaz exitua, bere haurra sartzten du lephoraino askako urean. ? Izotz goiz bat zen. ? Gaixoa luzez han idukirik baderama hotz gogortua etxerat, eta pausatzen du bere ohakoan. ? Zenbeit orenen buruan ohartzen dire haurrak haxa baduela eta lo dago-

la. ? Biharamunean, loz eta bulharrez arte hartan onxa aserik, haur hori jeiki nahia, nekhez atxiki zuten ohean. ? Biharamunagoan, hor atxematen dute muthikoa ohetik eskapatua, jauzika hantxe dabilala sendo eta azkar.

Ama hark bere haurra harpeko ur hotz hartan sarthu zuenean, bazi- ren han ehunka ikusleak, eta guziek emazte hori oihuka gaizkitu zuten bere gogorkeriaz. Gero hargatik bertze oihu gisarik ere athera zen jende hekien ahotik ama haren fedez eta Birjina Sainduaren bothereaz!

Eta geroztik zenbat holako mirakuilu! zenbat ehun, zenbat mila!... Eta oraino bethi eta noiz nahi aintzina gerthatzen!... Nun fedegabeak berak harrituak baitagozi, hainizek nahitez amor eman baitute, eta beren baithan sarthurik, zinez gure Fedea bezarkatzen.

Ixil daude orai Harpeko ithurria deusik ez zela eta fite agortuko zela hain goraki ziotenak. ? Oraiko orenean segurik ez du iduri oraino agortzera dohala; ezen ehun eta hogoi mila pinta ur gutienetik egunean ematen ditu Bernadetak bere erhiz xilhaturikako putxuak.

Andreak erran hamabortz egunak hola hola iragan ziren, bai mirakuiluak, bai hekien ikusleak geroago eta gehiago emendatuz zohazilarik. Hargatik gero ere egun guziz Bernadeta bazabilan bere harpera. Bainan agerkari ohikoa ez zuen gehiago ikusi, salbu bertze hiru ald: Martxoaren 25ean, gero Bazko biharamunean, eta azkenekotz uztailearen hamaseian.

Martxoaren 25eko hartan, Andre Dena Mariaren Anontziazioneko besta egunean, egundaino baino ikusgarriago eta ederrago agertu zitzaion Bernadeta bere Andrea.

Bernadetak galde hau egin zion: ? «Othoi orai bedere, ene Andre ona, othoi erradazu bada nor zaren zu, othoi erradazu zure izena.»

Behin, bietan egin zion galde hori, eta Andreak deus ihardexi gabe behatzen zion irri ezti eta maite batekin.

Hirugarren aldikotz galde bera egin zioenean, Ama Birjinak, bere esku ordu arteraino junt zagozkanak berexi zituen, arrosoriak beso eskui- nera lerraraziz... Gero bi besoz ezti ezti egin zuen goratze eta beheititze bat... Zeruari beha paratu zen... Eta oraino berritz eskuak elgarri juntatuz hau erran zuen.

«Ni nai<sup>z</sup> Konze<sup>ph</sup>zione notha gabeak»



Horra Lurdeseke Ama Birjina agertu izan zeneko mirakulak. Horien egia baino hobeki frogaturik ez da munduan gure denboretako gerthakarietan.

Gauza espantagarri horien kariaz, Bernadeta eta haren burasoak, nahi izan balute aise aberaxtuko ziren, eta ez dire aberaxtu. Bernadeta mundu hau sekulakotz utzirik, serora egin zen, eta bizi da zerutiar bat bezala urrungo komentu batean.

### XIII

## 1875ean, Jubilau urthe sainduan, Lurdaserat eta Betharramerat egin ginuen pelegrinaia

Sekulan ezin ahantzizko egunak guretzat 1875eko Bazko biharamun eta hirugarren hek! ? Lurdeseke ginen hamar bat mila pelegrin, Baionako diosesaren bazter guzietarik harat bilduak: denak gizonak; erdiak eta gehiago Eskualdunak.

Gure Jaun Aphezpikuak oiher eginik, hura hara zohala, eta eia bere diosesako gizonetan bazen etz hari jarraiki nahirik; bortz edo sei mila eskualherri xoietik bildu ginen haren gana.

Burdin bidez ez da gaitz horrelako bidaia baten egitea. ? Burdin bideek ordean ez dute ukhitzen Eskualherriaren hegaltto bat beizik.

Baigorrik, Aldudek, Garaziko herriek urrun dituzte burdin bideak. Zuberoko zokhoetarik abiatzea aree gaitzago da. Halere bazter hoietarik guzietarik, hamarka, hogoika, ehunka athera ziren gizonak... eta zer gizonak!

Ikustekoak ziren bidean zohatzila;... beren fededun kopeta hein bat gorarik; beren gurutze gorria papoan; arrosorioak eskuan; gehienxak oinez, beren hamar, hogeik lekhoen egiteko... Bedere horiek ez zuten eskualdun odolik ukhatzen.

Baigorriar, Aldudar, Garaztar eta Zuberotar gutiz gehienek, beren oinez egin zituzten beren 60, 70, 80 kilometrak, batzuek Baionako gararaino heltzeko, bertzeek Puyorat eta bertze zenbeitet Paubera eta Lurdeseke berera biltzeko.

Oinezko pelegrin horietan baziren zenbeit 70 urthez goitikoak. Adin hortako batto Donapaleotik Lurdesekeinoko jua jinean oinez bezik ez zen ibili.

Orobat Santangraziarretarik batek, Bazko igandetik Asteazken arrax artean, 74 urthetan, oinez egin zituen bere 87 kilometrak Lurdeseke bere eta bertze hainbertze etxera;... eta biharamun goizean goiz alhorrean zen iraulden ari.





Adin berxuko Baigorriar batek, bizkar eta errainak dolorez makhurtuak izana gatik, Baionarainoko bere 55 kilometrak, bai harakoan bai etxerakoan, hark ere oinez egin zituen.

Anhauzarrena da ederra. ? Beren Jaun Errotora aintzineko, herriko gizon higi ahal guziak pelegin ziren, eta oro oinez Ba?onako harat hunateko 120 bat kilometretan. ? Bide guzian othoitzean eta kantaz ibilirik, Asteazken arraxeko hamar orenetan, Ama Birjinaren letaniak errepikatuz heltzen ari ziren Anhauzeko plazara. ? Han berean arraxeko othoitza elgarrekin egin eta erretiratu ziren beren etxetara.

Bazko biharamun arraxaldean, hiru orenetako, guziak Lurdesen ginen. Gero zen ikustekoa gure proasionea.

Lurdeko garatik harpe saindura baita urrax onez oren erdi baten bidea segurik, halere bide handia eta karririk ez ziren aski zabal gure aise kokatzeko. Metan eta sorkhan bezala ginohazin othoitzean eta kanta errepikaz, gure herri nausietako banderekin eta gure hiru ehun aphez xuriz jauntziekin.

Grotara heltzen ari ginelarik, gure Jaun Aphezpikua eta Tarbesekoa, biak bildu ziren gutara. Ordukotz iguzkia sartzeraz zohan.

Harpearen aintzinean bazen aldare bat, eta sahaxeko etxe tikiaren kaskoa baliatu zen predika lekhatzat.

Lehenik entzun ginuen prediku bat franxesez Aita Dominikano batek eman zuena, zointan eskualdunen Fedez eta Fede haren ohoreaz asko erran baitzuen.

Prediku hori akhabatzearekin, gure Jaun Aphezpikuak aldarerat iganik, eman zeraukun Sakramendu Sainduaren benedizioa.

Ja ilhuna zen osoki, eta hamar mila peleginek, bakhotxak gure argia eskuan ginarokan. ? Handik harpeko mendiari gora abiatu ginen lerroz lerro eta kanta errepikaz proasionean. Grotaren gaineko elizaren ingurua eginik, hola hola hedatu ginen Lurdeserako bide zabalean, gero bethe ginuen hiriko karririk luzeena, eta azkenekotz koka ahal guziak batera bildu ginen plaza-nausiaren barnera. Han akhabatu zen gure gabazko eta argidun proasionea.

Batzu gan ziren beren deskanxuaren hartzeko tokietara; bertzeek lo egin baino nahiago izan zuten gau hura guzia beilatu Basilikan berean.

Eta hainbertze jendeen artean ez oihu bat, ez den gutieneko desordre bat!...

Gauerditik goiti, Basilikako hogoi eta bortz aldaretan, gure Jaun aphezak hasi ziren beren Mezen emaiten, eta lehen Mezatik hasirik, mahain sainduetan, komunioneak ez ziren baratu nunbeit han zazpi orenak artio.

Goiztiri dohaxu hartan, ez zen hango debozionearen parerik. Orduan ez ginuen bertze deusez phenxatzen gure Jainkoaz, gure Jainkoaren Amaz eta gure arimez baizen.

Bihotzeko bakeak, amodio Jainkozkoak, Maria Birjinaren ager lekhan ginela orhoitzeak, gure salbatzaileaz gozatzeak, batzuek bertzeeri han ematen ginuen ikusgarri ukhigarriak;... horiek guziek ezartzen gintuzten bertze mundu baten erdian bezala oro loriatuak.

Zortzi orenetan ginuen Meza nauzia; Biarnesek hango galbario bixkarrean, eta Eskualdunek Harpearen aintzinean; ez zen eta denak betan koka zitezken tokirik.

Ez gare orhoit egundaino Meza batean hain gogotik, hain bihotzez kantaturik. Ez gare orhoit egundaino prediku batez orduan bezala inharrosiak eta ukhitsuak izanik.

Bezpera arraxeko predikariaren lekhu beretik mintzatu zitzaikun eskuaraz, aita Benediktino bat, sortzez eta suharrez egiazko eskualduna, bainan zerutiaren bizirik sainduena, eta sainduen bizitzeko molderik garratzena ereman beharrez, mundutik berex jarria.

Eskualdunen Fedez eta Fede haren ohoreaz, nahiz bezperan ja arrotz baten ganik zerbeit entzunak ginen, gure Don Agustin zen aditzekoa gauza beraren gainean, bereziki gogoratzen zitzaionean Fede hori nunbeit galtzen duten zenbeiten zorigaitza. ? «Ah! Eskualdunak, zertako utz Eskualherria? Hemendik nihora gabe hain gostuan eta hain ohorezki bizi zintezketelarik.»

«O Eskualdunak! maita, maita zazue Eskualherria... zaudezte hor berean, zaudezte fermu zuen Fede ederrean. Nihun ez zaitezket Eskualherrian egonez baino urusago, eta nihundik ez zohazkete Zerura segurkiago.»



Hitz horiek ez ditugu han ginenek sekulan ahantziko, baitakigu nola ginen hura mintzo zitzaikularik haren gainerako arrozoinenez argituak, harrituak, eta denak azkenekotz nigarretaraino hunkituak.

Huna gero akhabantzan, peleginai handietako usaiaren arabera eginarazi zarozkigun oihuak edo aklamazioneak;... hark lehenik, eta guk guziek betan haren ondotik errepikatuz oihuka:

«O Maria, maita, begira, salba zazu Eliza!...» ? «O Maria, maita, begira, salba zazu gure Aita Saindua!...» ? «O Maria, maita, begira, zalba zazu Frantzia!...» ? «O Maria, maita, begira, salba zazu Eskualherria!...»

Ez diteke erran, gure bihotzak orduan han nola ziren; eta ez da dudatzeko gutarik hainitzek bi egun hetan Lurdesen izan dituzten inharros aldi loriagarriari zor izanen dutela beren salbamendua.

Astearte egerdi heinean ginuen harpe saildutiak gure partiada. Handik ahal ginuen guziek Betharramera jo ginuen.

Betharrameko kaperak ez gintzakeen koka. Hedatu ginen hango galbarioko bixkarreraino, nun emana izan baitzen Sakramendu Sainduaren benedizioa.

Gero abiatu ginen etxera, harateko bide berez eta harateko molde beretan.

? Etxerat eta guziak gauza bati oharatu ginen: batere ez ginela nekhatuak; bai ordean erran diteken baino gehiago gustu hartuak eta loriatuak.

## XIV

### MEZA SAINDUKO OTHOITZAK

#### MEZA AINTZINEAN

Zure Aldare Sainduaren oinetan ahuspez emanik, adoratzan zaitut, ô Jainko guziz botherexua.

Sinhesten dut entzutera nohan Meza dela Jesukristo zure Semearen Gorphutzaren eta Odolaren Sakrifizioa.

Sinhesten dut Sakrifizio hau dela Galbarioko hura bera, Aldare hunen gainean orai, odol ixurtze eta hiltze berririk gabe, bainan hango bothere eta merezimendu guzietan ofritzera dohatzuna.

Jesukristorekin, haren minixtroarekin eta Elizarekin bat egiten naitzelarik, ene xedea da, Jauna, Meza Saindu hunen bidez, zuri zor darozkitzudan adorazione eta esker on guzien bihurtzea; munduko bekhatu guzientzat, eta bereziki nereentzat satisfazione zuri egitea; halaber ene arimako eta gorphutzeko behar orduentzat zure grazien ardiextea.

*Meza kantatua denean, ez da balako othoitzik nola baita gogotik, xuxen eta debotki Elizaren kantueri bat bederak bere bozaren juntatzea.*

#### MEZA HASTEAN ETA KONFITEOR ERRATEAN.

Nahiz zeronek jadanik badakizkatzun ene hoben guziak, ô ene Jainkoa; halere orai hemen, denek orobat jakin detzaten, eta denek entzutat miserikordia galde dezazuten, zeru lurren aintzinean aithortzen dut hainitz bekhatu egin dudala, bai gogoz, bai hitzez, bai obraz. ? Ene hobek handiak dire, Jauna; bainan zure urrikalmenduak ere ordean ez du bazterrik ez eta negurririk. Indazu bada othoi barkamendu, neretzat ixuri izan duzun Odolaren orhoitzapenetan.



### APHEZA ALDARERAT IGAN ETA.

O Trinitate Saindua, adoratzeko zaitut. Zu hiru presunetako Jainko baxharra, Zeru lurrek laudatzen eta benedikatzeko zaituzte. Loria Aitari eta Semeari eta Izpiritu Sainduari, orai eta mendeen mende guzietan. Halabiz.

*Aldizkatuz: alde batetik Aphezak edo khorokak, bertzetik populuak.*

V. Kyrie eleison. R. Kyrie eleison.

V. Kyrie eleison. R. Christe eleison.

V. Christe eleison. R. Christe eleison.

V. Kyrie eleison. R. Kyrie eleison.

V. Kyrie eleison.

*Edo eskuaraz bertze othoitz han:*

Jauna, urrikal gaxizkitzu. Kristo guretzat hil izan zarena, othoi salba gaitzatu. Jainko urrikalmenduxua, gure bihotzen dolamenak eta gure miseriaren auhenak othoi adi zatu.

### GLORIA IN EXCELSIS DEO:

Et in terrâ pax hominibus bonæ voluntatis. ? Laudamus te. ? Benedicimus te. ? Adoramus te. ? Glorificamus te. ? Gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam. ? Domine Deus, Rex cœlestis, Deus Pater Omnipotens: ? Domine, Fili unigenite, Jesu-Christe. ? Domine Deus, Agnus Dei, Filius Patris. ? Qui tollis peccata mundi, miserere nobis. ? Qui tollis peccata mundi, suscipe deprecationem nostram. ? Qui sedes ad dexteram Patris, miserere nobis. ? Quoniam tu solus Sanctus; ? Tu solus Dominus; ? Tu solus Altissimus, Jesu-Christe. ? Cum Sancto Spiritu, in gloria Dei Patris. ? Amen.

*Aphezak: V. Dominus vobiscum.*

*Populuak: R. Et cum spiritu tuo.*

Igutzu Jauna, Eliza zure esposak Aphezaren ahoz guretzat orai galdetzen darozkitzun graziak eta berthuteak. ? Ez gare gai geroni entzunak izateko; bainan othoizten zaitugu Jesukristo zure Seme gure Jaunaz, zoina zurekin bizi baita eta bothere beraz gozatzeko, Izpiritu Sainduaren batasunean, orai eta mendeen mende guzietan. Halabiz.

### EPIXTOLAN.

Sinhesten dut Jauna, gure Profetek eta Apostoluek iskribuz utzi dauzkiguten irakaspenak, zeronek hekierri inspiratuak direla, eta ez dela hetan zureganikako egirik baizen. Lagun gaitzatu zure argiez baliatzen, eta begira gaitzatu munduko enganioez atxemanak izatetik, eta fedegabekoen ixumendutik.

### EBANJELIOAN.

Ebanjelio huntan, ô Nausi dibinoa, zeroni zare mintzo. Huntan da zure Lege soberanoa. Huntan darokuzu irakusten nolakoak izan diren gure salbatzeko erabili dituzun urraxak. — Huna nun nagon bada xutik, Jauna, nahi natzaizula jarraiki zure dizipulu fidel bezala zure Ebanjelioko legearen bidean, eta nahi dudala bethi ene fedea goraki agertu mundu guziaren bixtan.

### CREDO IN UNUM DEUM.

Patrem Omnipotentem, factorem cœli et terræ, visibilium omnium et invisibilium. — Et in unum Dominum Jesum Christum, Filium Dei Unigenitum. — Et ex Patre natum ante omnia sæcula. — Deum de Deo,



lumen de lumine, Deum verum de Deo vero. — Genitum non factum, consubstantialem Patri, per quem omnia facta sunt. — Qui propter nos homines et propter nostram salutem descendit de cœlis. — Et incarnatus est de Spiritu Sancto, ex Maria Virgine, ET HOMO FACTUS EST. — Crucifixus etiam pro nobis sub Pontio Pilato, passus et sepultus est. — Et resurrexit tertiâ die secundum scripturas. — Et ascendit in cœlum: sedet ad dexteram Patris. — Et iterum venturus est cum gloriâ iudicare vivos et mortuos, cujus regni non erit finis. — Et in Spiritum Sanctum Dominum, et vivificantem: qui ex Patre Filioque procedit. — Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur; qui locutus est per Prophetas. — Et unam Sanctam Catholicam et Apostolicam Ecclesiam. — Confiteor unum baptisma, in remissionem peccatorum. — Et expecto resurrectionem mortuorum. Et vitam venturi sæculi.

Amen.

### OFERTORIOAN.

Aita Jainko bethierekoa, onhex zazu othoi Aphezaren eskuz eskaintzen darotzugun ofrenda garbi hau. Ogi eta arno hori Jesukristoren gorphutz eta odolera ganbiatu baino lehen, izan ditezen zutaz benedikatuak, eta aintzinetik zure saindutasunaz eskuztatuak. Ofrenda horri juntatzen diot, ene arimarena, ene gorphuzarena, ene biziarena, hitz batez, dituzkedan gauza guziena.

### APHEZAK ERHIAK GARBITZEAN.

Garbi nazazu Jauna, sakrifikatzer dohatzun Bildoxaren Odolean, zure graziaren arropa xuria jauntzirik, bizi naizeno maiz hurbil nadin zure amodioaren Sakramendurat, eta hiltzen naizenean eskuak eta bihotza xahurik ager nadin zure jujamendura.

### ORATE FRATRESEAN ETA SEGIDAKO APHEZAREN OTHOITZ IXILETAN.

Agrada bekizu, Jainko Jauna, nere eta Eliza Sainduaren onetan aphezaren eskutik hartzera zohazin sakrifizio laudoriozkoa, Jesukristo Gure Jaunaren Pasionearen, Phiztearen eta Zerurat Igaitearen orhoitzapenena; bai eta ere Maria Birjinaren eta Saindu guzien ohoretan, hekien arartekotasuna ere balia dakigun zure Mayestatearen aintzinean.

### PREFAZIOAN.

O ene arima! ô ene bihotza! ô ene gogo! Orai altxa gaiten lurreko gauza guziez gorago... Jainko handia! zuk gure ganik hartze dituzun esker onen eta laudorioen zuri behar den bezala emateko geroni ez gare aski, ez deus batzu baikare.

Hortako behartzen zaiku zure Semea; Hartaz zaituzte zeruko Aingeru eta dohaxu guziet osoki eta zor zaitzun bezala adoratzen. Gu ere, Jauna, utz gaiztatu othoi gure bozen eta bihotzen hekieneri yuntatzera, guziet bai orai bai eternitatean, dezagun elgarrekin errepika zure loriaren kantua.

*Saindua, Saindua, Saindua da Harmadetako Jainko Jauna: izan bedi Zeru gorenetan lorioski aiphatua... Orobat gorexia eta benedikatua izan bedi, Jaunaren izenean heldu zaikuna.*

Sanctus, Sanctus, Sanctus, Dominus Deus Sabaoth. Pleni sunt cœli et terra gloriâ tuâ: Hosanna in excelsis. Benedictus qui venit in nomine Domini: — Hosanna in excelsis.

### SANCTUS ONDOAN.

Aita Jainkoa, Aita guziz ona eta amulxua, zure Seme hain maitea hemen sakrifikatzer dohatzularik, beha zozute haren merezimendueri



eta hekien botherea heda zazu zure Eliza guziaren gainera, gure Aita Sainduaren gainera, gure Jaun Aphezpikuaren gainera, eta Eliza Katolikoaren sinhestean eta batasun osoan bizi diren guzien gainera.

### LEHENBIZIKO MEMENTOAN.

Zure ontasun negurri gabeen, Jauna, orhoit zaite, ene aita, ama (*ene espos, ene haur*), haurride, ahaide, adixkide, gorphutzeko eta arimako ongiegile guziez, bai eta ere exaiez. Guziek sendi bezate sakrifizio huntarikako ona, beren arimen salbamenduarentzat, gorphutzeko osasunarentzat eta beren gainerako behar ordu guzientzat. Grazia horien zu ganik hobeki ardiesteko, bat egiten gare Maria Birjina zure Seme Jesukristoren amarekin, zure Apostoluekin, zure Martirekin eta Saindu guziekin.

### APHEZAK OSTIAREN ETA KHALITZAREN

#### GAINERAT

### ESKUAK HEDATUAK DAGOZKALARIK.

Heda zatzu, Jauna, nere gainera zure esku miserikordiaz eta ontasunez betheak, eta osoki nitaz jabe jar zaite. Begira nazazu damnazione eter-naletik, eta ezar zure hautexien nonbrean eta zorionean.

### OSTIA SAINDUA ALTXATZEAN.

O Jesus, egiazko Jainko eta egiazko gizona! Sinhesten dut zinez eta fermuki Ostia Saindu hortan zarela. Adoratzen zaitut hor, zu ene jabea, ene Kreatzailea eta ene Salbatzailea.

### KHALITZA ALTXATZEAN.

O Jesus, zure odolaz erosi nauzuna, adoratzen dut khalitz horren barnean ene erospeneren prezioa. Jainkozko odol hortarikan xortatto, othoi, utz zazu eror dadin ene arimaren gainera, hortaz osoki garbi nazazu ene bekhatu guzietarik, hortaz othoi salba nazazu.

### JAUN HANDIA ALTXATU ONDOAN.

O Jainkoa, huna nun darotzugun orai presentatzen, zure Handitasunaren, zure Saindutasusanen, zure justiziaren betheko Bitima. Beha zozu: horra zure Semea: horra Galbarioan guretzat sakrifikatu zuen Gorphuz adorarri hura bera: horra guretzat ixuri zuen odol preziatu hura bera. Eta orai ere gure bekhatuen barkhamendutan, eta guri zure grazien ardiesteko sakrifikatzen zaitzu Aldare hunen gainean. O Jauna! hunelako berme bat aintzinerat ematen dautzudalarik, zer daiteke ene othoizetan entzun ez dirozunik?... eta ene auhenek nola ez lirote ukhi zure bihotza?

### BIGARREN MEMENTOAN.

Orhoit zaite Jauna, Purgatorioetan diren arima gaixoez, eta bereziki gure othoizten beharretan eta hartzetan gehienik direnez. Hetan baditut ahaideak, adixkideak, asko ene ongiegile, asko ene faltaz han pairatzen dutenak. Othoi Sakrifizio hunen merezimenduz ezti eta akhabaraz zatzu hekien penak; othoi emozute eternitateko gozoa.



### APHEZAK BULHARRAK JOTZEAN.

Bekhatoros bat naiz, Jauna; bainan zure urrikalmenduak enetzat ez du izaririk. Hortako dut bada uste ni ere ezarriko nauzula zure Erresuman, zure Apostoluekin, Martirekin eta Birjinekin batean. Dohaxutasun hori galdetzen darotzut zure Seme Jesukristo Gure Jaunaren izenean.

### PATERREAN.

Zeronek erranik, Jauna, eta zeronek hitzez hitz irakasirik, huna haur batzuek beren aitari bezala adrezatzen darotzugun othoizta.

Pater noster qui es in caelis, santificetur nomen tuum; adveniat regnum tuum; fiat voluntas tua sicut in caelo et in terrâ. Panem nostrum quotidianum da nobis hodie: et dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris: et ne nos inducas in tentationem: Sed libera nos à malo.

Amen.

(Edo orobat eskuaraz: *Gure Aita...*)

### APHEZAK OSTIA SAINDUA HAUXTEAN.

O ene bihotza, haux eta erdira hadi Aldarean enetzat sakrifikatzen ari den Bitima amulxu horren bixtan. Ez ahal haiz izanen Galbarioko harrokak baino gogorrago, hire Salbatzailearentzat.

Agnus Dei qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei qui tollis peccata mundi, dona nobis pacem.

Oi zu! Jainkoaren Bildoxa, munduko bekhatuak zure gain hartu dituzuna, urrikal gakizkitzu. Nere bekhatuak garbi eta ezezta zatzu. Emadazu othoi, zurekilako, ene kontzientziarekilako eta ene lagun proximoarekilako bakea.

### DOMINE NON SUM DIGNUSEAN.

Zure amodioak zerabilza Jauna nere ondotik, ene baitharat ethorri beharrez. Ni ez naiz ordean nihola ere gai zure errezebitzeko. Hargatik zer gozoa enetzat ene bihotzean bazintut! Othoi bada errazu hitz bat, eta ene arima osoki garbitua izanen da.

### APHEZAREN KOMUNIONEAN.

Zato, Jesus maitea, zato ene bihotzera. O Aingeruen ogia! ô Sakramendu adoragarria, izan zakizkit ene gozo eta hazkurria. Zu baithan dagokat, Jauna, ene sinhestea eta esperantza, eta zure amodiotik deusek ere ez nezala ni nihorat aldara.

### KOMUNIONE ONDOAN.

O ene Salbatzailea, horra beraz nun duzun konxumitu zure Sakrifizioa!... Zer egin zinero gehiagokorik orai enetzat? Harritzeko ere da, Jauna, nola gure bekhatuek, eta guziz ni bezalako esker gabeek, ez darotzuten ingoitirik arnegarazten, gure ondotik dabilzkatzun urraxetan! Jesus! zu hain bihotzduna eta hain jenerosa neretzat;... eta ni bethi hain idorra zure alderat!... Othoi, ganbia nazazu, eta zu, Jauna, egon zakizkit bethi berdin amulxu eta urrikari.

**AZKEN ORAZIONETAN.**

Othoi Jauna lagun gaitzatu zure legearen bidean xuxen ibiltzen; lagun gaitzatu gaizkitik begirutzen eta ongiaren egiten. Lagun gaitzatu gure Fedean eta gure Eliza Ama Sainduaren amodioan eta fidelitatean bethi azkar egoten. Othoi salba gaitzatu guziak, Jesukristo zure Seme Jaunaz, zoinak zurekin eta Izpiritu Sainduarekin bat egiten eta erreginatzen baitu, mendeen mende guzietan.

Halabiz.

**APHEZAK BENEDIZIOEA EMATERAKOAN.**

Trinitate adoragarria, Meza Saindu hau zutaz eta zu othoiztuz hasi ginuen: zutaz eta zu othoiztuz akhabatzen dugu. Niri eta nik gomendatu guziera salbagarri izan bekigu, eta orai zure benedizioea jaux bedi gure gainerat, Aitaren, Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Halabiz.

**AZKEN EBANJELIOAN.**

Jainko Seme Berbo eternala, haste hastetik diren gauza guzien egile izan zarena; zu guzien bizia; zu guzien argia; Zeru gorenetik lurreko ilhunpetara jauxi izan zarena; eta Birjina Mariaren erraictan Gizon egin zarena, ô Jesus, zure odolaz erosi gaitutzuna, eta oraino Mezako Sakrifizioaren bidez eta zure Aldareko Sakramenduaz gutartean zure egoitza egiten duzuna, zuri ohore, laudorio, ezker-on, amodio eta adorazioe, zeruan, lurrean, eta mende guzietan. Halabiz.

**XV.****AMA BIRJINAREN BEZPERAK**

*Pater Noster, etc., Ave Maria, etc.*

DEUS in adjutorium meum intende.

R. Domine, ad adjuvandum me festina.

† Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto: sicut erat in principio, et nunc et semper, et in secula seculorum. Amen.

**PSALMOA 109.**

DIXIT Dominus Domino meo: \* Sede à dextris meis.

Donec ponam inimicos tuos \* scabellum pedum tuorum.

Virgam virtutis tuæ emittet Dominus ex Sion: \* dominare in medio inimicorum tuorum.

Tecum principium in die virtutis tuæ in splendoribus sanctorum: \* ex utero ante luciferum genui te.

Juravit Dominus, et non pœnitebit eum: \* tu es Sacerdos in æternum secundum ordinem Melchisedech.

Dominus à dextris tuis, \* confregit in die iræ suæ reges.

Judicabit in nationibus, implebit ruinas: \* conquassabit capita in terrâ multorum.

De torrente in via bibet; propterea exaltabit caput.

Gloria Patri... Sicut erat...

**PSALMOA 112.**

LAUDATE, pueri, Dominum, \* laudate nomen Domini.  
 Sit nomen Domini benedictum, \* ex hoc nunc et usque in seculum.  
 A solis ortu usque ad occasum, \* laudabile nomen Domini.  
 Excelsus super omnes gentes Dominus, \* et super cœlos gloria ejus.  
 Quis sicut Dominus Deus noster, qui in altis habitat, \* et humilia respicit in cœlo et in terrâ?  
 Suscitans à terra inopem, \* et de stercore erigens pauperem.  
 Ut collocet eum cum principibus, \* cum principibus populi sui.  
 Qui habitare facit sterilem in domo, \* matrem filiorum lætantem.  
 Gloria Patri... Sicut erat...

**PSALMOA 121.**

LÆTATUS sum in his quæ dicta sunt mihi; \* In domum Domini ibimus.  
 Stantes erant pedes nostri \* in atriis tuis, Jerusalem.  
 Jerusalem, quæ ædificatur ut civitas, cujus participatio ejus in idipsum.  
 Illuc enim ascenderunt tribus; tribus Domini; \* testimonium Israël; ad confitendum nomini Domini.  
 Quia illi sederunt sedes in iudicio, \* sedes super domum David.  
 Rogate quæ ad pacem sunt Jerusalem; \* et abundantia diligentibus te.  
 Fiat pax in virtute tua, \* et abundantia in turribus tuis.  
 Propter fratres meos et proximos meos, \* loquebar pacem de te.

Propter domum Domini Dei nostri, \* quæsivi bona tibi.

Gloria Patri... Sicut erat...

**PSALMOA 126.**

NISI Dominus ædificaverit domum, \* in vanum laboraverunt qui ædificant eam.  
 Nisi Dominus custodierit civitatem, frustra vigilat qui custodit eam.  
 Vanum est vobis ante lucem surgere; \* surgite postquam sederitis; qui manducatis panem doloris;  
 Cum dederit dilectis suis somnum: \* ecce hæreditas Domini, filii; merces, fructus ventris.  
 Sicut sagittæ in manu potentis, \* ita filii excussorum.  
 Beatus vir qui implevit desiderium suum ex ipsis: \* non confundetur cum loquetur inimicis suis in porta.  
 Gloria Patri... Sicut erat...

**PSALMOA 147.**

LAUDA Jerusalem Dominum \* lauda Deum tuum, Sion;  
 Quoniam confortavit seras portarum tuarum: \* benedixit filiis tuis in te;  
 Qui posuit fines tuos pacem, et adipe frumenti satiat te;  
 Qui emittit eloquium suum terræ, \* velociter currit sermo ejus;  
 Qui dat nivem sicut lanam, \* nebulam sicut cinerem spargit.  
 Mittit crystallum suum sicut bucellas; \* ante faciem frigoris ejus quis sustinebit!





Emittet verbum suum, et liquefaciet ea: \* flabit spiritus ejus, et fluent aquæ.

Qui annuntiat verbum suum Jacob, \* justicias et judicia sua Israël.

Non fecit taliter omni nationi, \*et judicia sua non manifestavit eis.

Gloria Patri... Sicut erat...

Ab initio, et ante sæcula creata sum, et usque ad futurum sæculum non desinam, et in habitatione sancta coram ipso ministravi.— Deo gratias.

### HIMNOA.

AVE, maris stella,

Dei Mater alma,

Atque semper virgo,

Felix cœli porta.

Sumens illud Ave,

Gabrielis ore,

Funda nos in pace,

Mutans Hevæ nomen.

Solve vincla reis,

Profer lumen cæcis,

Mala nostra pelle,

Bona cuncta posce.

Monstra te esse matrem

Sumat per te preces

Qui pro nobis natus,

Tulit esse tuus.

Virgo singularis,

Inter omnes mitis,

Nos culpis solutos

Mites fac et castos.

Vitam præsta puram,

Iter para tutum;

Ut videntes Jesum,

Semper collætetur.

Sit laus Deo Patri,

Summo Christo decus,

Spiritui Sancto,

Tribus honor unus. Amen.

V. Dignare me laudare te, virgo sacrata.

R. Da mihi virtutem contra hostes tuos.

### AMA BIRJINAREN KANTIKA.

MAGNIFICAT \* anima meam Dominum.

Et exultavit spiritus meus, in Deo salutari meo.

Quia respexit humilitatem ancillæ suæ: \* ecce enim ex hoc beatam me dicent omnes generationes.

Quia fecit mihi magna qui potens est: \* et sanctum nomen ejus.

Et misericordia ejus à progenie in progenies, \* timentibus eum.

Fecit potentiam in brachio suo: \* dispersit superbos mente cordis sui.

Deposuit potentes de sede: \* et exaltavit humiles.

Esurientes implevit bonis: \* et divites dimisit inanes.

Suscepit Israël puerum suum: \* recordatus misericordiæ suæ.



Sicut locutus est ad patres nostros: \* Abraham et semini ejus in secula.

Gloria Patri... Sicut erat...

### SALVE REGINA.

SALVE, Regina, Mater misericordiæ; Vita, dulcedo et spes nostra, salve. Ad te clamamus, exsules filii Evæ. Ad te suspiramus gementes et flentes in hac lacrymarum valle. Eia ergo, advocata nostra, illos tuos misericordes oculos ad nos converte: et Jesum, benedictum fructum ventris tui, nobis post hoc exilium ostende: ô clemens! ô pia! ô dulcis Virgo Maria?

V. Ora pro nobis, sancta Dei Genitrix.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

*Orazione.* Omnipotens sempiterne Deus, qui gloriosæ Virginis Matris Mariæ corpus et animam, ut dignum Filii tui habitaculum effici mereretur, Spiritu Sancto cooperante, præparasti: da, ut cujus commemoratione lætamur, ejus pia intercessione ab instantibus malis et à morte perpetua liberemur. Per eundem, etc. R. Amen.

Divinum auxilium maneat semper nobiscum. R. Amen.

### REGINA CÆLI.

Regina cœli, lætare, alleluia,

Quia quem meruisti portare, alleluia.

Resurrexit sicut dixit, alleluia.

Ora pro nobis Deum, alleluia.

V. Gaude et lætare, Virgo Maria, alleluia.

R. Quia surrexit Dominus verè, alleluia.

*Orazione.* Deus, qui per Resurrectionem Filii tui Domini nostri Jesu-Christi, mundum lætificare dignatus es; præsta, quæsumus, ut per ejus genitricem Virginem Mariam, perpetuæ capiamus gaudia vitæ. Per eundem, etc.

**XVI.**

**SAKRAMENDU SAINDUAREN  
BENEDIZIONEAN**

O salutaris Hostia,  
 Quæ cæli pandis ostium?  
 Bella premunt hostilia,  
 Da robur, fer auxilium.  
 Uni trinoque Domino  
 Sit sempiterna gloria,  
 Qui vitam sine termino  
 Nobis donet in patria. Amen.

—————  
 Tantum ergo Sacramentum  
 Veneremur cernui;  
 Et antiquum documentum  
 Novo cedat ritui:  
 Præstet fides supplementum  
 Sensuum defectui.  
 Genitori, Genitoque  
 Laus et jubilatio,  
 Salus, honor virtus quoque  
 Sic et benedictio:  
 Procedenti ab utroque  
 Comprar sit laudatio. Amen.

V. Panem de celo præstitisti eis.

R. Omne delectamentum in se habentem.

\* \* \*

LAUDATE Dominum omnes gentes, \* Laudate eum omnes populi.

Quoniam confirmata est super nos misericordia ejus \* et veritas Domini manet in æternum.

Gloria Patri, etc.



## XVII.

## BIRJINA SAINDUAREN LETHANIAK

KYRIE, eleison.

Christe, eleison.

Kyrie, eleison.

Christe, audi nos.

Christe, exaudi nos.

Pater de cœlis, Deus, miserere nobis.

Fili, Redemptor mundi, Deus, miserere nobis.

Spiritus Sancte, Deus, miserere nobis.

Sancta Trinitas, unus Deus, miserere miserere nobis.

Sancta Maria, ora pro nobis.

Sancta Dei Genitrix,

Sancta Virgo Virginum,

Mater Christi,

Mater divinæ gratiæ,

Mater purissima, ora pro nobis.

Mater castissima, ora pro nobis.

Mater inviolata,

Mater intemerata,

Mater amabilis,

Mater admirabilis,

Mater Creatoris,

Mater Salvatoris,

Virgo prudentissima,

Virgo veneranda,

Virgo prædicanda,

Virgo potens,

Virgo clemens,

Virgo fidelis,

Speculum justitiæ,

Sedes sapientiæ,

Causa nostræ lætitiæ,

Vas spirituale,

Vas honorabile,

Vas insigne devotionis,

Rosa mystica,

Turris Davidica,

Turris eburnea,

Domus aurea, ora pro nobis.

Fæderis arca, ora pro nobis.

Janua Cœli,

Stella matutina,

Salus infirmorum,

Refugium peccatorum,

Consolatrix afflictorum,

Auxilium Christianorum,

Regina Angelorum,

Regina Patriarcharum,

Regina Prophetarum,

Regina Apostolorum,

Regina Martyrum,



Regina Confessorum,  
 Regina Virginum,  
 Regina Sanctorum omnium,  
 Regina sine labe concepta, ora pro nobis.  
 Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Domine.  
 Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos Domine.  
 Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.  
 Inviolata, integra et casta es, Maria,  
 Quæ es effecta fulgida cœli porta.  
 O Mater alma Christi carissima!  
 Suscipe pia laudum præconia.  
 Nostra ut pura pectora sint et corpora,  
 Te nunc flagitant devota corda et ora.  
 Tua per precata dulcisona,  
 Nobis concedas veniam per sæcula.  
 O benigna! O Regina! O Maria!  
 Quæ sola inviolata permansisti.

\* \* \*

SUB tuum præsidium confugimus, sancta Dei Genitrix: nostras deprecationes ne despicias in necessitatibus; sed à periculis cunctis libera nos semper, Virgo gloriosa et benedicta.

## PELEGRINEN KANTIKAK.

### I.

#### Lurderako eta Harperako bidean kantatzekoa.

AIREA: *Atzar gaiten atzar lotarik...*

(ERREPIKAZ GUZIEK).

Guazen, guazen, galdetzen gaitu

Ama Birjinak Lurdera:

Dugun ikus nun den agertu

Guazen Lurdeko Harpera.

(BATEK).

Eskualherrian entzun dugu

Mirakuilu baten fama:

Lurdesen ikusi omen du

Haur batek Jesusen Ama.

*Guziek:* Guazen, guazen, galdetzen gaitu.

Hamalau urtheko nexka bat

Deitzen zena Bernadeta

Ur hegiko zariketarat

Goiz batez gan zen xotxeta.

Guazen, guazen...

Harrabox handi bat entzunik,

Zer othe zen beha zagon.

Andre bat harroketan xutik



Agertu omen zitzaion.  
 Guazen, guazen...  
 Harpe batetik goraxago  
 Zilhoska baten erdian,  
 Ama Birjina beha dago  
 Bernadetari lorian.  
 Guazen, guazen...  
 Argi xuriz bezti omen zen  
 Eta xoragarri eder.  
 Haur bihotz garbi bati baizen  
 Ez zaiteken hala ager.  
 Guazen, guazen...  
 Erran omen zion haur hari  
 Ithurri bat bazela han:  
 Edan zezan han eta garbi  
 Zadiela ur berean.  
 Guazen, guazen...  
 Harpe hartan ez baitzen urik  
 Lehen sekulan ikusi:  
 Bernadetak han ithuririk  
 Nihun ez zezaken kausi.  
 Guazen, guazen...  
 Bernadetak harpe xokhoan  
 Eskuz xilhatu rik lurra,  
 Bet betan hark egin xiloan  
 Sortzen hor hasten da ura.  
 Guazen, guazen...

Ithurri bat nasaia orai  
 Erran dute han badela  
 Sendatze handiak ere bai  
 Ur hark egin dituela.  
 Guazen, guazen...  
 Gero hau eran zion omen  
 Birjinak Bernadetari:  
 «Eliza bat nahi dut hemen;  
 Errozute aphezari.»  
 Guazen, guazen...  
 Hau ere omen zion erran:  
 «Mintza zait Bernadeta,  
 Jendea proasionean  
 Hunat bil dadin osteka.»  
 Guazen, guazen...  
 Bernadetak zion Maria  
 Oihuz zagola gutara.  
 «Othoitz eta penitentzia  
 Egizue-ta ez bara.»  
 Guazen, guazen...  
 Bertze behin zen saminago  
 Ama Birjinaren hitza.  
 «Ez dirot atxik gehiago  
 Jaunaren beso borthitza.»  
 Guazen, guazen...  
 Hau da galdegin zioena  
 Haurrak gero Birjinari:



«Andre ona, zure izena  
Erradazu othoi niri.»  
Guazen, guazen...  
Andrea orduan eman zen,  
Zeru ederrari beha;  
Zioelarik: «Ni naiz deitzen  
Jaiotze notha gabeal»  
Guazen, guazen...

## II.

### Lurdeko Harpe Sainduaren aintzinean kantatzekoa.

BOZ BATEK:

Huna, huna, Harpe saindua!  
Belhaunika gaiten hemen;  
Birjinaren ager lekhoa...  
Beha horrat: horra nun den.

GUZIEK:

Horra, horra, Harpe Saindua!  
Hor agertu zen Maria:  
Huna mirakuiluz sortua  
Birjinaren ithurria.

BATEK:

Noiz ere hunat baitzen jauxi  
Ama Birjina zerutik,  
Harroka, larre eta sasi,

Hemen ez zen bertze deusik.  
Horra, horra...  
Bernadeta hortxetik zagon  
Ama Birjinari beha:  
Guretzat ere ô zein den on,  
Orai hemen izaitea!  
Horra, horra...  
Hauxe da hemen gerthatzeko  
Gauzaren hunkigarria!  
Gutarat hala ethortzeko,  
Zu behar zinen Maria?  
Horra, horra...  
Bernadeta bezein garbirik  
Nihor balitz gu tartean  
Menturaz berritz ageririk  
Zakusazke hor berean.  
Horra, horra...  
Horra harroka hortan xutik  
Orduko haren itxura;  
Huna zurrutan ithurritik  
Hark sorrarazizko ura.  
Horra, horra...  
Ama Birjinak erran hitzak  
Handizki dire obratu.  
Hark galdatu zuen elizak  
Harpe hau du khoroatu.  
Horra, horra...



Osteka noiz nahi geroztik  
 Birjinak erran bezala,  
 Zeruko grazien ondotik  
 Jendea hemen dabila.  
 Horra, horra...  
 Mundu guziak badakitza  
 Hemengo mirakuiluak,  
 Nun nahi azkarrik dabilta  
 Eri hemen sendatuak.  
 Horra, horra...  
 Gorphutz eri guziak baino  
 Arimak beharragoak,  
 Usuago dire oraino  
 Hemen pizturikakoak.  
 Horra, horra...  
 Eskualdunak huna nun garen  
 Maria zure oinetan;  
 Lagun gaitzatzu Fedearen  
 Begiratzten gure baithan.  
*Orai hori bera guzijek errepikaz:*  
 Eskualdunak huna nun garen  
 Maria zure oinetan;  
 Lagun gaitzatzu Fedearen  
 Begiratzten gure baithan.  
 BOZ BATEK:  
 Fedeak du egin bethitik  
 Eskualdunen ohorea:

Gure artean bethi xutik  
 Iduk dezagun Fedea.  
 GUZIEK:  
 Eskualdunak huna nun garen  
 Maria zure oinetan;  
 Lagun gaitzatzu Fedearen  
 Begiratzten gure baithan.  
 BATEK:  
 Gu ere zenbat galtzen ari,  
 Fedea hoztu zaikunak!...  
 Othoi Maria, urrikari  
 Izan zatzu eskualdunak.  
 GUZIEK:  
 Eskualdunak huna nun garen  
 Maria zure oinetan;  
 Lagun gaitzatzu Fedearen  
 Begiratzten gure baithan.

### III.

#### Maria bekhatirik gabe kontzebitua.

BATEK:  
 Amodio ohore  
 Ama Birjinari,  
 Maria notha gabe  
 Kontzebituari.





## GUZIEK:

Agur, agur, agur Maria.

Agur, agur, agur Maria.

Gure lehen aitamen

Bekhatuak ez du

Sekulan Mariaren

Arima goibeldu.

Agur, agur, agur Maria.

Bekhatu gabekorik

Adamen arrazan

Ez zu bezalakorik

Ez da nihoiz izan.

Agur, agur, agur Maria.

Maria zu hain garbi

Hain saindu sorthua,

Zuk duzu sugeari

Lehertu burua.

Agur, agur, agur Maria.

Jaunak zu bethidanik

Zintuen beirutzen,

Zure Seme zu ganik

Sortzekoa baitzen.

Agur, agur, agur Maria.

Jainkoaren eskutik

Ez da atheratu

Obrarik hain perfetik

Nola baitzare zu.

Agur, agur, agur Maria.

O Birjina Maria,

Zer konpara zuri?

Elhur egin berria

Ez zait aski xuri.

Agur, agur, agur Maria.

Zure baithan Maria,

Berthutea dago

Mendiko ithurria

Baino garbiago...

Agur, agur, agur Maria.

Zutan gauza handiak

Jaunak egin ditu,

Eta haren graziak

Zaizkitzu gainditu.

Agur, agur, agur Maria.

Jaunaren baratzeko

Lore hautatua

Gizon da eta Jainko

Zure fruitua.

Agur, agur, agur Maria.

Emazte pare gabe

Jainkoak egina,

Amatuz geroz zare

Gelditu Birjina.

Agur, agur, agur Maria.



Oi zu Birjtna Saindu

Jainkoaren Ama!

Amatzat guri zaitu

Semeak emana.

Agur, agur, agur Maria.

Zure Semea hiltzen

Ari zelarikan

Gutaz amatu zinen

Dolore handitan.

Agur, agur, agur Maria.

Oi zein puxanta zaren

Birjina Maria!

Zeruko loriaren

Erdian jarria!

Agur, agur, agur Maria.

Zure haurren othoitz

Othoi entzun zazu.

Ama zure laguntza

Zerutik iguzu.

Agur, agur, agur Maria.

*Huna orai birur ahopaldi edo berset Lurdeko pelegriaietakotzat berex eginak, eta bertze kasuetan salta ditezkenak.*

Hemen (edo Lurden) zinen agertu

Maria haur bati;

Gero zer den gerthatu

Munduak badaki.

Agur, agur, agur Maria.

Harroka hau zen lehen

Urik gabekoa,

Eta geroztik hemen

Ura nasai doha.

Agur, agur, agur Maria.

Arimak bai gorphutzak,

Zahar ala gazte;

Hemen sendatu gaitzak,

Nork khonda detzazke?

Agur, agur, agur Maria.

*(Horra Lurdesen berean kantatzeko biru bersetak)*

Gure Ama maitea,

Zuk othoi zerutik

Eskualdunen Fedea

Idukazu xutik.

Agur, agur, agur Maria.

Eliz'eta Frantzia

Dagotzu nigarrez

Zure ganik Maria

Laguntza beharrez.

Agur, agur, agur Maria.

Lagun zazu Eliza

Zure bothereaz.

Bothere berak beza,

Frantzia altxaraz.

Agur, agur, agur Maria.



*Kantika hori bera, lehenbiziko berseta, Amodio ohore, errefautzat hartuz, (Agur Mariarik gabe), eman diteke bertze aire huntan edo bertze asko eskuara airetan.*

## IV.

## Othoi Ama maitea, urrikal zaizkigu.

## I.

## BATEK:

Uholde baten pare orai bekhatuak  
Gaindiz bazter guziak ditu hondatuak.  
Nun dire fededunak? nun dire justuak?  
Azken eguna hurbil othe du munduak?

*Errefaua guzijek:*

Othoi Ama maitea,  
Urrikal zaizkigu,  
Jainko zure Semea  
Hasarre baitugu.

**Abisua.**— «Othoi Ama maitea...» errefau lehenbiziko hori bera, errexagoz hola hola aldi guzietz errepika diteke bertze berseten ondotik ere.

Segida huntan ezarriak diren bertze errefau diferentak, ez litezke kantatu behar, zoin noiz eman, onxa kasu eginez baizen.

## II.

Nor da gure artean erran dezakenik?  
«Ez naiz ni deusen beldur; nik ez dut hobenik.»  
Zuk dirozu Maria, hain garbi izanik,  
Gure grazia ardiex Jainkoaren ganik.

Zuri gaude Maria,  
Oihu-ta nigarrez.  
Jaunaren justizia  
Eztitu beharrez.

## III.

Gizonen arbuioek aserik Jainkoa,  
Bere azotearen higitzera doha.  
Nork orai atxik liru Jaunaren besoa?  
Zu zare zu Maria indar hartakoa.

Othoi Ama maitea  
Urrikal zaizkigu;  
Jainko zure Semea  
Hasarre baitugu.

## IV.

Jaunaren justiziaz ikharetan gaude:..  
Othoi, Ama, jar zaite zure haurren alde.  
Harengana nor hurbil, nor ager zu gabe?  
Zu zaitugu zu haren bihotzaren jabe.

Zuri gaude Maria  
Oihu-ta nigarrez.  
Jaunaren justizia  
Eztitu beharrez.



## V.

Jauna, aithortzen dugu; gutarik hainitzi,  
Zuri zer zor dautzugun zitzaikun ahantzi.  
Gure Fedea dugu aphaltzerat utzi...  
Eskualdunaren ganik hori zaitzu gaitzil...

Othoi Ama maitea,  
Urrikal zaizkigu;  
Jainko zure Semea  
Hasarre baitugu.

## VI.

Lehengo Fede hura berritz pitz dakigun,  
O fededunen Ama, zuk gaitzatzu lagun.  
Bai! Eskualdunek hemen hitz eman dezagun,  
Bethi zinez izanen garela fededun.

Bai! Eskualdunek hemen  
Hitz eman dezagun,  
Bethi zinez izanen  
Garela fededun.

## VII.

Elizaren argia Erroman hain handi;  
Gaixtaginen nahia laite hil baladi...  
Zuri gare Maria denak oihuz ari:  
Emozu bitoria Aita Sainduari.

Zuri gare Maria  
Denak oihuz ari:  
Emozu bitoria  
Aita Sainduari.

## VIII.

Zer hersturetan dagon gur'Aita Saindua!  
Kolpe berez Frantzia, nola minhartua!  
Maria, entzun zazu hekien oihua...  
Hek altxatzen badire salbu da mundua...

Zuri gare Maria  
Denak oihuz ari:  
Emozu bitoria  
Aita Sainduari.

## V.

**Amodio Birjina Mariari.**

Maite zaitut, ô Birjina Maria,  
Eta bethi zaitut maitatuko.  
Ama maitagarria,  
Nere bihotz guzia  
Izan bedi zuretzat bethiko!  
Nor liteke bihotz bat izan eta,  
Zu maitatu gabe lagokenik?  
Nik zu nola ez maita?



Ene baithan ez baita  
 Zu maitatuz baizen zorionik.  
 Bainan ene bihotzaren ahala  
 Hain da ahul eta hain da guti!  
 Ai nik ere oxala!  
 Aingeruek bezala  
 Ama, zure maitatzen banaki!  
 O Maria, zure bihotz barnetik  
 Salta bekit phindar bat nitara.  
 Zure amodiotik  
 Han zu lothuz geroztik,  
 Erretzetik ez nadien bara.  
 Zu baitharik pizturikako garraz  
 Maita niro Jesus gehiago:  
 Nere bihotz bakharraz  
 Edo nere indarraz,  
 Deus ez dirot, Ama, zuri nago.  
 Ez banauzu ni zuk bethi laguntzen,  
 Zein erorkor naizen badakizu.  
 Arren zeren ez naizen  
 Bekhatoros bat baizen;  
 Zure haurra urrikal bekizu.

*Huna orai bertze kantikatto bat, parada hartakoa gertha baladi, edo Betharramen edo orobat Bugolosen ere kanta litekena. Aski da hortako tokiaren izenaren arri-matztea errefauan den bigarren pberxuarekin. Hala nola:*

Agur Ama Birjina  
 Betharramekoa.  
 (Edo Bugoloseko balitz:)  
 Agur Ama Birjina  
 Bugolosekoa.  
 (Orobat Lurdesen berean:)  
 Agur Ama Birjina  
 Harpe saindukoa.  
 (Orobat oraino Saragozera baginobazti:)  
 Agur Ama Birjina  
 Pilhar saindukoa.

## VI.

### Betharramen kantatzekoa.

*Aire hunen edo bertze asko aire eskuaren gainean.*

## VI.

### Ama Birjina Betharramekoari.

Agur, Ama Birjina  
 Betharramekoa  
 Zeruko Erregina  
 Eta lurrekoa.  
 Oi guretzat zer ama!



Zer arartekoa!  
 Berea dagokana  
 Seme bat Jainkoa!  
 Munduko usinpean  
 Itho ez gaitezen,  
 Zure botherea han  
 Daukuzu agertzen:  
 Erori garenean  
 Gaitutzu altxatzen.  
 Eta bide onean  
 Maiteki laguntzen.  
 Agur Ama Birjina...  
 Eskualdunak aspaldi  
 O Ama maitea!  
 Zure ganat badaki  
 Hemengo bidea.  
 Munduak khendu nahi  
 Darokun Fedea  
 Hemendik altxa bedi  
 Indarrez bethea.  
 Agur Ama Birjina...  
 Gure! arbasuak lehen  
 Oi zer fededunak!  
 Ama zu ganat ziren  
 Maiz ethortzen hunat.  
 Orai ere gu hemen  
 Gare eskualdunak

Maiz zure laguntzaren  
 Beharra dugunak.  
 Agur Ama Birjina...  
 Othoitzez gagozkitzu  
 Hemen zure oinetan:  
 Fedea finka zazu  
 Gure bihotzetan:  
 Osasuna iguzu  
 Gorphutz arimetan:  
 Zerurat hel gaitzatzu  
 Zure besoetan.  
 Agur Ama Birjina  
 Betharramekoa;  
 Zeruko Erregina  
 Eta lurekoa.  
 Oi guretzat zer Ama!  
 Zer arartekoa!  
 Berea dagokana  
 Seme bat Jainkoa!

## VII.

### Betharrameko Galbarioan.

#### Gurutze Sainduari.

*Boz batek.*

Zure besotan, oi Gurutzea?



Hil zaiku Jesus maitea:  
 Haren gurutzefikatzailea  
 Ni naiz ni bekhatorea! } *bis.*  
*Guziek errepika.*  
 Oi Gurutzea! oi Gurutzea!  
 Gurutze saindu maitea! } *bis.*  
 Jesukristoren Odolak zaitu  
 Galbarioan gorritu:  
 Deusek geroztik munduan ez du  
 Zuk bezenbat dirdiratu. } *bis.*  
 Oi Gurutzea! oi Gurutzea!  
 Gurutze saindu maitea! } *bis.*  
 Bertzorduz hemen exai gaixtoa  
 Zutaz izan zen ehoa.  
 Zure indarra da Jainkozkoa,  
 Deusek ezin hauxizkoa. } *bis.*  
 Oi Gurutzea! oi Gurutzea!  
 Gurutze saindu maitea! } *bis.*  
 Exaiarekin bethi guduan  
 Hemen gabilza munduan:  
 Pharatzen bazaizkigu buruan,  
 Oi gu nork bentzu orduan! } *bis.*  
 Oi Gurutzea! oi Gurutzea!  
 Gurutze saindu maitea! } *bis.*  
 Jesukristori zurekin baizen  
 Ez da nihor jarraikitzen.  
 Zure bidetik da bethi zuzen

Kristaua zerurat heltzen. } *bis.*  
 Oi Gurutzea! oi Gurutzea!  
 Gurutze saindu maitea!  
 Oi Gurutzea! oi Gurutzea!  
 Gurutze saindu maitea!

*Orai huntarik segidan den kantika hau, Aita sainduaren oboretan, kanta diteke peleginaietako bide luzetan.*

### VIII.

#### Aita Sainduari.

Erromako aldetik zer da argi hori?  
 Egiak dauku handik argitzen orori.  
 Beha dezogun beha bethi Erromari,  
 Erromako Eliza Ama Sainduari;  
 Beha dezogun beha umeek Amari.  
 Hara Aita Saindua Jesusen ordaina,  
 Aphez Soberanoa, artzainen artzaina  
 Jaundoni Petiriren ondoko zuzena.  
 Fedez dohanean tronpa ez daitena:  
 Erromatik mundua argitzen du dena.  
 Piarresi ziozkan guretzat Jainkoak  
 Atxikitzerat eman argi fedezkoak.  
 Argi berak dagozka haren ondokoak  
 Munduko goibeletan ezin hixtuzkoak,  
 Orai hastean bezein garbi-ta osoak.  
 Jesusen Piarresi erran zion behin:



«Elizaren zimendu hi behar haut egin.  
 Hartako diat nahi harriz izan hadin.  
 Ez zirok deus irabaz exaiak hirekin,  
 Berak dik minhartuko hi jotzearekin!  
 Hire gain uzten diat ene arthaldea.  
 Bildoxen bai ardien xuxen alhatzea.  
 Hiri zagok Anaïen beren azkartzea:  
 Hik idek edo hex duk Zeruko athea:  
 Hik duk ene gakhoen podore bethea.»  
 Munduko nahasduren ulubiak ditu  
 Orai arterainoko guziak sunxitu.  
 Piarresen harroka guti da higitu:  
 Elizaren arbola xutik da gelditu;  
 Inharrosteaz zaizko erroak handitu.  
 Lurreko puxantziek uste zuten eiki  
 Aise behar zutela Eliza aurdiki.  
 Berak dire erori!... gero ezin jeiki!  
 Guziak goaki bainan Eliza egoki...  
 Hemeretzi menderen berri ja badaki.  
 Erroma! ô Erroma! Hiri famatua!...  
 (Lehen oro harena omen zen mundua.)  
 Piarresen harroka han da finkatua,  
 Eta mundu guziko Eliza Saindua  
 Dena haren gainean da asentatua.  
 Nork erran Piarresen Erroman sartzea?  
 —Laster ohartu hintzen Enperadorea!—  
 Biak nausi, elgarri jartzen dire beha:

Bat artzain ona bezein oxoa bertzea:..  
 Hauta zak hor Erroma zoin dukan hobea!  
 Hainbertze girixtino odol irexirik;  
 Berari odol hura zainetan sarthurik,  
 Erroma xutitu zen girixtinoturik.  
 Enperadorek berek tronutik jauxirik,  
 Aita Saindua zuten utzi han jarririk.  
 Apez eta Errege: bi bothere betan,  
 Oi! zein ederki dauden haren eskuetan!  
 Ez da sainduagorik buruzagietan:  
 Nor da zuzenagorik, nor khorodunetan?  
 Gaixtaginek hortako dute begietan!  
 Munduak Erromari zer dio galdetzen?  
 Egi-eta gezurra han bake ditezen.  
 Horra beraz mundua zertaratu haizen...  
 Egiarik ez nahi hauxiz mauxiz baizen!  
 Bainan Aita Sainduak osorik dauk zaintzen.  
 Munduko nausitasun guzien gakhua,  
 Horra Aita Sainduak duen eskukoa:  
 Lurrekotzat emana zerutikakoa.  
 Hori hari khen eta nork duke dretxoa  
 Gizonak gizonari deus manatzekoa?  
 Oi zein handi zein eder, zein gora zaren zu!  
 Zuri loriatuak beha gagozkitzu.  
 Aita Saindu maitea, haur bihotzdun batzu,  
 Eskualdunak gu ere zureak gaitutzu:  
 Zurerik baizen ez da eskualduntzat haizu.





*Kantika hori bera orobat arras onxa doha segidako bertze aire hunako hunen gainean, zoina baita biskaino zortziko bat.*

### VIII.

*Haste hau boz batek.*

Magnificat \* anima mea Dominum.

*Errefau hau gero guzijek.*

Maria zu zare zu

Gure esperantza:

Bethi othoi iguzu

Zerutik laguntza.

*Segidan hola hola aldirikatuz, berset latinak boz multxu batek, eta errepika eskuan-  
ra guzijek.*

Et exultavit spiritus meus \* in Deo salutari meo.

Maria zu zare zu

Gure esperantza;

Bethi othoi iguzu

Zerutik laguntza.

Quia respexit humilitatem ancillæ suæ\*, ecce enim ex hoc beatam me dicent omnes generationes.

Maria zu zare zu...

Quia fecit mihi magna qui potens est \* et sanctum nomen ejus.

Maria zu zare zu...

Et misericordia ejus a progenie in progenies \* timentibus eum.

Maria zu zare zu...

Fecit potentiam in brachio suo \* dispersit superbos mente cordis sui.

Maria zu zare zu...

Deposuit potentes de sede \* et exaltavit humiles.

Maria zu zare zu...

Esurientes implevit bonis \* et divites dimisit inanes.

Maria zu zare zu...

Suscepit Israel puerum suum\*, recordatus misericordiæ suæ.

Maria zu zare zu...

Sicut locutus est ad patres nostros\*, Abraham et semini ejus in sæcula.

Maria zu zare zu...

Glori Patri et Filio \* et Spiritui Sancto.

Maria zu zare zu...

Sicut erat in principio et nunc et semper \* et in sæcula sæculorum. Amen.

Maria zu zare zu

Gure esperantza,

Bethi othoi iguzu

Zerutik laguntza.

### Othoitz bat.

O Maria notha gabe kontzebitua.

Zu Jainkoaren Ama eta gurea ere zarena.

Zu hain urrikalmenduxua eta hain botherexua:

Zu, toki mirakuiluzko huntan zure amodioa eta puxantzia hala seinalatu izan darokozuna:

Zu, hemen gure othoitzak hain bihotzera dohazkitzuna:



Huna nun naizen bada ni ere, ene sinhesteak, ene amodioak, ene arimako eta gorphutzeko behar orduak hunat ekharrarazia.

Ah! nere bihotza, nere xedeak, eta nere othoitzak aski garbi balire, ah! orduan zein segur eta zein laster entzuna nindeken!

Othoi lehenik ardiex dietzadatzu ene arimaren salbatzeko behar ditudun graziak eta hetaz baliatzen lagun nazazu.

Othoi behaozute urrikalmendurekin ene izpiritualeko eta tenporaleko behar ordu guzieri, eta emadazu denetan zure laguntza.

Othoi zure esku botherexua hedaozu gure Eliza Amari, gure Aita sailduari eta Frantziari.

Othoi jauzarazatzu Jainkozko argiak eta bethuteak gure Jaun Aphezpikuaren eta gure arimen artzain edo gidari guzien gainerat.

Othoi benedika zatzu gure familiak, eta gure ongi egile guziak, senda zatzu gure eriak, konxola zatzu gu tartean penetan direnak.

Othoi nitarikan hasirik konbertiaraz zatzu munduko bekhatoros guziak.

Othoi ez zazula utz Fedea gure artean galtzerat.

Othoi lagun gaitzatzu leial eta fidel egoten Jesukristo gure nausi dibinoaren, eta Eliza Ama sailduaren alderat.

Othoi lagun gaitzatzu salbatzen; eta hiltzen garenean, zeronek, ô Ama maitea! zure besotan presenta gaitzatzu zure seme Jainkoari.

Halabiz.